



Goierritarra

**euskaraz
22i nuy dt ***
KMK'03 LAZKAO

* Euskaraz bizi nahi dut. Kilometroak 03 / Lazkao

**Ikastolazaleen eta
euskaltzaleen zain**

**Santa Fe jaiak
Zaldibian**

**Artisaualdia
Ordizian**



SILVIA MIRAS CASASAYAS
ODONTOLOGOA

TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)

ODONTOLOGOA



**ERABATEKO
H O R T Z
KLINIKA
INTEGRATUA**
GURE INSTALAKUNTZAK ELBARRITUENTZAT
ERABAT EGOKITUAK DAUDE, KLINIKAK SAN
INAZIO KALE BERTARA EMATEN DUELARIK

Teknologia, profesionaltasuna eta arreta, zerbitzu bakar batean bateratuz, giro goxo batean, zerbitzurik hurbilena eskeiniz, dentistarekiko zure ikuspegia aldatuko dugu.



RFS144/02

Km 0 hemen da



Eurolan 4x4

Donostia-Hernani errep.

Tel. 943 33 10 06

(Volvo eta Galarreta ondoan)

**0 km Todoterrenoak,
Zuzendaritzako Autoak
eta Auto Estreinuak-berriak**
prezio ezin hobeetan.



- 2 urteko bermea Europa osoan.
- Oinarritzako 81 puntuen azterketa zehatza.
- Berehala eskura.
- Finantzaketa baldintza bereziak.
- Konpromezurik gabe probatzeko aukera.

Modeloa	Potentzia	Kolorea	Aukerak	km	Urtea	Salneurria	Eskaintza salneurria
Freelander 3ate 2.5 V6 4x4	177 CV	Alveston Red	Aluminiozko lantak 16", CD irratia eta aire egokitua.	0	2003	32.866 €	26.445 €
Freelander 5 ate 2.5 V6 4x4	177 CV	Epson Green	Aluminiozko lantak 16", CD irratia eta aire egokitua.	0	2003	35.321 €	28.257 €
Freelander 3ate TD4 diesel 4x4	112 CV	Gris metalizatua	Aluminiozko lantak 16", CD irratia eta aire egokitua.	0	2003	28.601 €	26.402 €
Freelander 3ate TD4 diesel 4x4	112 CV	Gris metalizatua	Aluminiozko lantak 16", CD irratia, aire egokitua eta biltzen den lotura.	20.000	2002	29.065 €	23.065 €
Freelander 5ate TD4 diesel 4x4	112 CV	Gris metalizatua	Aluminiozko lantak 16", CD irratia eta aire egokitua + estriberak.	2.000	2003	30.981 €	26.982 €
Freelander 5ate TD4 diesel 4x4	112 CV	Gris metalizatua	Aluminiozko lantak 15", CD irratia eta aire egokitua.	0	2003	30.581 €	27.093 €
Discovery TD5 4x4 S 4x4	138 CV	Granate metalizatua	Aluminiozko lantak 16", klimatiz., irratia mandoa bolantean, e.a.	0	2003	35.901 €	31.770 €
Discovery TD5 SE 4x4	138 CV	Beltza	Larrua, Full Equipe	6.000	2003	42.070 €	34.859 €
Isuzu 3.0 TDi motza	160 CV	Berdea	Pintura metalizatua	0	2003	33.055 €	26.450 €
Isuzu 3.0 TDi luzea 7 leku	160 CV	Beige met.	Estriberak	0	2003	35.460 €	29.450 €
Auto ia berria (urte 1eko bermea): Range Rover 4.0 + HSE	224 CV	Gris metalizatua	Full Equipe, suspensio pneumatikoa.	-	1998	61.700 €	30.050 €

Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierritarrak Kultur Elkartea

Dorre-etxea, 1 (Postetxe gainean)

124 posta-kutxa ORDIZIA

Tfnoa: 943 88 96 12

Faxa: 943 88 27 19

Posta elektronikoa:

goierritarra@topagunea.com

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Publizitatea: Argider Mujika

Zenbaki honetako kronista eta

kolaboratzaileak: Joseba Telleria, Aitor

Calvillo, Xabier Urteaga, Nekane Altuna,

Eduene Albizu, Eduene Sorraluze, Jon

Muñoa, Ainhoa Mujika, Doltza

Barandiaran, Aimar Maiz, Zelai

Amenabarro, Aitziber Murua, Iñaki

Ugalde, Enrike Enparantza eta Landarlan.

Fotokonposizio eta maketazioa:

Goierritarra

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga 9. Oñati)

Tirada: 7.000 ale

SSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen
derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzukizunik.



Eusko Jaularitzako

Kultura Sailak,

Gipuzkoako Foru Aldundiak

eta

GOIERRIKO UDALEK

diruz lagundutako

aldizkaria

VI. Artisaualdia Ordizian, urriaren 11tik 12ra

Majori kiroldegia, Gipuzkoako artisautzaren erakusleho izango da urriaren 11tik 12ra, VI. Artisaualdiari esker. Artisanak lanean ikustearekin batera, 52 artisauen lanak erosteko aukera izango da. Gipuzkoako artisautza bultzatzearekin batera, artisauen arazoak aztertu eta irtenbideak aurkitzeko gune izan nahi du Artisaualdiak. Gabiltzak (Gipuzkoako Artisanuen Elkartea) eta Ordiziako Udalak antolatutako azoka honetan, Gipuzkoako 40 artisauen lanak izango dira ikusgai eta erosgai. Horrekin batera Euskal Herriko beste 12 artisau gonbidatu.

Urriaren 11n, goizeko 11etan inauguratuko da azoka. Goiz eta arratsaldez egongo da azoka irekita, 10:30etik 14:00etara eta 17:00etatik 20:30era. 1,50 euro balioko du azokako sarrerak. 15 eurotik gorako erosketetan, sarreraren beharapena egingo da. Sarrera bakoitzak zenbaki bana izango du eta orduro, 30 euroko erosketa baleak zozketatuko dira. Beste zozketa bat ere egingo da sarrerarekin: egunero, bi lagunentzako landetxe baten asteburuko egonaldia zozketatuko da, Eroski Bidaiak-en eskutik. Zenbaki irabazleak, www.viajeseroski.es eta www.artisaualdia.com web orrietan ikusiko dira interneten.

Horretaz gain, egunero, Goierriko landetxe batean 2 lagunentzako asteburua zozketatuko da 15 euro edo gehiagoko erosketa egiten dutenen artean, Goiturrek babesturik.

Goierritarrak

5 goierritarren lanak ere ikusgai izango dira. Gabiriako Amalur zura enpresaren egur torneaketa eta Pamela Villarraz eta Sergio Fabriren txongiloak eta paperezko lanak; Lazkaoko Peito Castoleren ispi-



luak eta abar; Ordiziako Koki Fernandez zeramika eta Zegamako Maduixa tailerraren oihal margotuak.

Tailerrak, zozketak, lehiaketak...

Artisau lanak ikusi eta erosteaz gain, tailer ezberdinetan parte hartzeko aukera ere izango dute haur zein helduek. Zumezko otargintza, gaztain otargintza, filigranak alanbrean, forjaketa, txotxongiloak-paperezko lanak, esmalteak, lore lehor eta prentsatuak eta egur margotuen tailerrak izango dira.

Erakustaldi berezia ere izango da: igandean, 12an, Jesus Paton Del Moralen kaligrafoaren lana izango da ikusgai. Aldi berean, Hernaniko Anastasia Leundaren hari lanak ezagutzeko aukera ere izango da.

Errenteriako Ereintza Elkarteari omenaldia eskainiko dio Gabiltzak, 25 urtean Errenterian antolatu duten artisau azokagatik.

Azokako giroa alaitzeko, trikitilariak, talogileak eta Ordiziako dantzariak izango dira.

Goierritarra Goierrikan kanpo jaso nahi dutenentzat, posta gastuak ordaintzeko tarifak:

Hego Euskal Herria eta Espainia:	urtean 12 euro
Ipar Euskal Herria eta Europa:	urtean 24 euro
Europaz kanpo:	urtean 36 euro



Turismoa: uda ona

Uztaila eta abuztuan turista ugari ibili da Goierriin. Iaz baino jende gehiago etorri da Goierriira, Zerain, Beasain, Segura, Zegama eta Ordiziako turismo bulegoetatik, Lizarrustiko Aralarreko Interpretazio Zentroetik eta Zumalakarregi museoetik jende gehiago pasatu baita informazio eske. 6.000 bat inguru kalkulatu da. Nekazalaturismoko etxeetako eta hotel-etako arduradunak gustura daude aurtengo udarekin.

Euskal Herri barruko turismoa eta Kataluniatik etorritakoa nabarmendu da. Dena den, estatu espainiarreko eta munduko beste hainbat txokotatik ere etorri dira: Madril, Valentzia, Kantabria, Murtzia, Gaztela Leon eta Mantxa, Andaluzia, Errioxa, Extremadura, Kanariar eta Balear irlak, Asturias, Aragoi, Galizia, Frantzia, Italia, Belgika, Ingalaterra, Irlanda, Holanda, Austria, Hungaria, Ukraina, Alemania, Sahara, Estatu Batuak, Txile eta Argentinatik.

Promozio lanean aurrera

Goierriko turismo informazioa zabaltzen aritzen dira Goiturrekoak batean eta bestean. Irailean, Leioan eta Donostian izan dira (argazkia Donostia standekoa da). Mía aldizkarikoak ere etorri dira Goierri buruzko erreportaia egitera. Orain, urrian, Gasteizen, Lazkaoko Kilometroak egunean, Irunen, Zaragozan eta Oloten (Girona) izango dira. Azaroan, Bartzelonan eta Valladoliden.

Produktu eta asmo berriak

Aurtengo ikasturtean Goierriko produktu turistikoaren mapa aurkeztuko da. Beste berrikuntza bat ere izango da: alojamen-
duen erreserbak egiteko zentrala jarriko da Donostian, Gipuzkoari begira.

Datorren urtean produktu turistiko berriak ere prest izango dira: Zerainen Aizpeako minatako interpretazio zentroa, Zegaman Egurraren museoa urte amaieran irekiko da, Segurako Ardiarraneko Erdi Aroko interpretazio zentroa, Ordizian eskualdeko museoa edo harrera gunea eta gastronomia museoa, eta Ataunen, antropologiari buruzko interpretazio zentroa irekiko da.

Azkenik, beste produktu txikiago bat: Zegamako ehun tailerrean soberan izaten dituzten telekin, orriak bereiztekoak egingo dituzte, plastifikatuta, www.goierri.org jarriko du, Goierriren oroigarri.

Hautzandegi zerbitzua Zegaman, Zerainen eta Ataunen

Haurreskolak partzuergo berriari esker, Zegaman, Zerainen eta Ataunen hautzandegi zerbitzua izango da ikasturte honetatik aurrera. 0 eta 2 urteko haurrentzako zerbitzua izango da. Ataunen 11 haurrentzako lekua izango da; Zegaman 7 haurrentzako eta Zerainen 4 haurrentzako.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza eta Nekazaritza eta Arrantza Sailek elkarlanean egindako egitasmoaren arabera, programaren irizpide nagusietako bat, kalte sozioekonomiko gehien jasaten dituzten eskualdeei eta nekazari inguruetan bizi direnei laguntzea izan da.

Eusko Jaurlaritzak ordainduko du 0 eta 2 urte bitarteko umeen hezkuntza zikloaren finantzaketaren %60; gainerakoa, gurasoek. Bestetik, udalek ordaindu beharko dituzte haur eskoletan egin beharreko obren gastuak eta mantentzea.

Itoizko urtegiaren aurkako ekintzetan 5 goierritar Artozki defenditzen

5 beasaindar izan dira astebete eta 10 egunen artean Nafarroako Artozki herria suntsitzea eragotzi nahian. Jon eta Naiara dira hauetako bi eta beraiek azaldu digute bertan bizitakoaren berri: *"Itoiz eta Nagore bota ondoren Artozki botatzeko ordua iritsi zenean bertara joan ginen erresistentzia pasibo edo bakezalea egitera. Hasera batean hori zen asmo bakarra. Baina, husteko eguna iritsi zenean ez zen inor azaldu eta plangintza aldatu beharra izan genuen. Handik aurrera herriari bizia ematen hasi ginen eta horretan jarraitzen dute bertan daudenak"*. Dena dela ez zen erraza herrian bizitza normalizatua eramatea, tentsio handia baitzegoen, poliziaren presentzi etengabearekin. *"Inguruko mendieta polizia asko zegoen, helikopteroarekin etengabe pasatzen ziren, tarteka herrian sartu eta aurrean harrapatutako guztia txikitzen zuten... Oso jarrera agresiboa azaltzen zuten, desgaste horrekin jokatzeko zuten"*.

Zenbait komunikabideetan 'okupa' bezala tratatu badiutze ere garbi utzi dute beraiek ez direla okupak. *"Gu herria defenditzen ari ginen, gure borrokaren ondorioz herria zutik mantentzea lortuko balitzateke etxe horiek beraien nagusien esku geratuko lirатеke. Bertako bizilagunen onarpen guztia genuen eta eskertzen zuten gainera. Baina gehienak oso zaharrak direnez ez zuten beraiek defendatzeko modurik"*.

Duela urte pare bat Itoizko urtegiak ur azpian utziko duen ingurua ezagutzeko martxa batean izan ziren. *"Naturari egiten zaizkion erasoak neure buruari egingo baliote bezalaxe hartzen ditut"*, dio Jonek *"Bertara joan eta zein inguru politak diren ikusten baduzu, bertako erreketan bainatzen bazara, bertako jendearekin hitz egiten baduzu... konturatzen zara zein astakeria egin behar duten urtegiaren proiektuarekin"*, gehitu du Naiarak. Biek ere ahal den azkarrena bertara itzultzeko asmotan daude, *"Artozki berriro ikusi beharra daukagu eta zutik gainera"*. Aldizkaria bukatzen ari ginela, Artozki husten hasi ziren.


'Mendia eta abeltzaintza uztarrrian' jardunaldiak izan dira Ordizian

EHNEk eta Mendiko Artzantza Lan Taldeak antolatutako, 'Mendia eta abeltzaintza uztarrrian' jardunaldiak izan ziren irailaren 26an eta 27an Ordiziako Barrena jauregian. Gai ezberdinak jorratu zituzten bertan bildutakoek. Iaz egin zuten lehenengo jardunaldia. "Mendia eta abeltzaintzaren uztarketa jorratzen hastea izan genuen iazko jardunaldietako helburua. Izan ere, datozen urteetan zer esan handia emango duen gai zabal eta korapilatsu hau ez da oraindik bere osotasunean landu", diote antolatzailleek. "Euskal Herria txikia izanik eta orokorrean abeltzaintzak behera egin badu ere, mendi-larre guñeak eremu garrantzizkoak dira oraindik. Beraz, lur edo mendi publikoen inguruan ezinbestekoa zaigu eztabaida guñe zabal hau sustatzea, euskal mendi-larre guñeei dagoen sistema multinazionalaren ezaugarriak finkatzeko. Mendiak abereekiko eta abereak mendiarekiko duten lotura biologiko eta historikoak gizarteratu behar dira. Gure mendi-larren biziraute eta bioaniztasunaren iraupenerako abeltzaintza ezinbestekoa dela barneratu behar du gizarte osoak", gaineratu dute.

Jose Mari Jauregi eta 'Bizkor' Oñatin txapelkun

Oñatiko nazioarteko artzain txakur txapelketa irabazi zuten irailaren 21ean Lazkaoko Jose Mari Jauregik eta 'Bizkor' txakurrak. Zorteko eguna izan zuen Jauregik irailaren 21ekoa: goizean, Oñatiko saria irabazi eta arratsaldean, bazkaltzeko ia astirik gabe, Amurrioko Artzain Eguneko txapelketan parte hartu eta han ere irabazi egin baitzuen.

Andoni Aizpuru 'Barnetegia' saioko aurkezlea




Euskal Telebistako lehenengo kateak pantailaratu-ko duen 'Barnetegia' saioa aurkeztuko du Andoni Aizpuru gabiriar-rrak. Urriaren 12 pertsona barnetegi bategan sartuko dira, 45 egunetan, euskara hobetzeko asmoz.



Hasier Mujika txirrindularia irabazle Beasainen

Irailaren 20an Beasainen jokatu zen jubentil mailako txirrindulari proban, Hasier Mujika beasaindarra izan zen irabazlea. Garingo helmugan, 90 kilometro egin ondoren, Caja Ruraleko txirrindularia izan zen azkarrena. Ohiko helmuga lekua aldatu behar izan zuten Loinaz Txirrindulari Elkarteak, Nafarroa Etorbidetako obrak zirela eta.



Pello Joxe Aranburuk Lazkaoko jaunei buruzko liburua aurkeztu du

Irailaren 24an, Pello Joxe Aranburuk 'Lazkaoko bi jauregi-21 belaunaldien apunte historikoak, 1335-1919' liburua aurkeztu zuen. Liburuaren aurkezpenean, Lazkaoko alkatea, Felix Urkola eta Antonio Prada historia doktorea izan zituen alkizarrak aldamenean. Antonio Pradak adierazi zuenez, "dudarik gabe, ikerketa hau oinarritzko erreferentzia-puntua izango da, historia-esparruan, Lazkaoko garpen politiko, sozial eta ekonomikoa aztertu nahi dutenentzat, bere herriko historia ezagutzeko irrikan dauden bizilagunentzat". Lazkaoko Mariari atal berezia eskaini dio Pello Joxe Aranburuk. Hurrengo aleetan izango dugu liburuari buruzko datu gehiago.

VI. Igartza Sariaren sari ematea urriaren 3an Lasarten

Aurten beranduxeago egingo da VI. Igartza Sariaren sari ematea: gaur, urriaren 3an, Lasarteko Txitxardin Beltxa jatetxean, arratsaldeko 7etan. Beasaingo Udalak, Elkarlanean argitaletxearekin eta CAF enpresarekin batera antolatutako idazle gazteentzako beka honetara, bederatziko proiektu aurkeztu dira. Julen Gabiriak, Jasone Osorok eta Xabier Mendiguren Elizegik osatutako epaimahaiak, saria, 'Karonte' lanari ematea erabaki zuen abuztuaren 25ean. 'Karonte' lanaren atzean nor dagoen, urriaren 3an jakingo dugu. Zuek, hurrengo alean.

Begirale ikastaroa Beasainen

Beasaingo Udalak begirale ikastaroa antolatu du. Urtxintza eskolak emango du ikastaroa, urritik maiatzera. 200 ordukoa izango da. Horrez gain, urtean zehar lau asteburu oso burutuko dira aterpe batean bertan lo egingez.

Ikastaroa egiteko baldintza bakarra da: 2004ko maiatzean 18 urte beteta edukitzea. Ikastaroaren prezioa, 130 eurokoa da. Barnetegiaren kostua, berriz, 100 euro.

Izena emateko epea, gaur, urriaren 3an bukatzen bada ere, interesa duenak oraindik ere aukera izango du, 943028100 telefono zenbakira deituta. Posta elektronikoa ere aukeran dago: zuzendaritza@beasain.net.

Telefonoko mezuak euskaraz

Lazkaoko San Benito Ikastolaren eskariz, Kilometroak 2003 jaiaren barruan, argitalpen berezia aurkeztu da: 'Segapotoen mezu sekretuak'. Sakeleko telefonoan mezuak euskaraz idazteko hiztegitxo umoretsua egin dute Kike Amonarriz, Antton Olariaga eta Asisko Urmenetak. San Benito Ikastolako ikasleek beharra ikusi zuten eta lazkaotarren proposamena begi onez ikusi zuten Zapiak Batmanekoek.

Trafiko oharak urriaren 5erako

Lazkaon urriaren 5ean ospatuko den Kilometroak jaiak, Goierriko trafikoa eragina izango du. Beraz, Kilometroak 2003 antolakuntzatik ondoko ohar hau gogorarazi dute: egun horretan Segura, Zegama, Mutiloa, Zerain, Ataun eta Olaberriara joateko, Gasteiztik Donostiarako norabidean datozenek, Idiazabalen, Benta Txikitik izango dute irteera. Donostiatik Gasteizko norabidean doazenak, berriz, Idiazabalen, Iñautin.

Goierri telebista

Goierri Telebista, Goierri eskualdeko telebista berria, martxan dago dagoeneko. Euskarazko telebistak, Goierriko 18 herrietako informazioa zabaltzen du. Kable bidez emititzen hasi dira. Beraz, Beasainen, Legorretan eta Ordizian ikus daiteke momentuz, S-11n sintonizaturik. Hurrengo egunetan, uhin bidez, ikusi ahal izango da Goierri guztian.

Yoga ikastaroa

Yoga Klasikoko Elkartek antolatutako, 'Yoga eta izpiritualtasuna' ikastaroa izango da urriaren 13tik 16ra, Ordiziako Barrenan, arratsaldeko 6,30etatik 8,30etara. Harold Sequiera izango da irakaslea. Matrikula 35 euro kostatuko da. Ikasleek merkeago izango dute: 25 euro. Informazio gehiago jasotzeko edo eta izena emateko telefono zenbakia hau duzue: 943882479.

Ikastaro honek emango dio hasiera, nolabait, 2003-2004 ikasturteari, Ordizian, Zaldibian eta Lazkaon.

Ordizian, urriaren 21etik maiatzera bitartean izango da, asteartean 18:30etik 20:00etara. Hileko kuota: 20 euro. Informazioa eta izen ematea, 943 88 24 79 (Trini) telefono zenbakian.

Zaldibian, urriaren 21etik maiatzera bitartean, asteartean, 19:00etatik 20:30era. Hileko kuota: 20 euro. Informazio gehiagorako telefono zenbakia: 943889667 (Karmele).

Lazkaon, azarotik maiatzera bitartean izango da yoga ikastaroa. Asteartean, goizeko 10etatik 11,30etara. Hileko kuota: 20 euro. Informazio gehiagorako, 943 801427 telefono zenbakian eskuratu ahalko duzue, Nekanez galdetuta.

KONTZIENTZIAREN BIKTIMAK

EMAKUME EKINTZAILEAK Sindikalistak

Mundu osoan zehar, behar ekonomikoak bultzatutako, emakumeek soldata ezin txarragoen truke lantergi ziztrinetan lan egin behar dute.



© RAWA. PAKISTAN 1999. Giza eskubideen aldeko emakumeen martirio.

Enpresariak emakumeak gizonak baino nahiago dituzte beraien ostez 'merkeago' eta

erorkarragoak direlako. Hala ere, batzuetan lan egoera jasanezinek emakume hauek taldeak antolatzera eta borrokatzen bultzatzen dituzte.

Baina berain eskubideen alde borrokatzen hasten direnean, baterean daudenean mehatxu bat bezala ikusten dituzte. Ordian lanpostua gal dezakete... eta bizia.

Amnistia Internacionalek emakumeari buruzko erakusketa antolatu du

Amnistia Internacional taldeak, Ordiziako Barrenan jauregian, emakumeari buruzko erakusketa antolatu du. Gaur, urriak 3, bukatuko da berau ikusteko aukera. Tartean, irailaren 25ean, tratatu txarrak zirela eta, Kolonbiatik alde egin behar izan zuen Alba Teresak bere testigantza azaldu zuen Ordizian bertan.

Toxiko jaleak diren landareak

Azken urteetan lurra asko kutsatu da eta neurri handi batean errua nekazaritzan kontrolik gabe erabili izan diren eta erabiltzen diren fitosanitario, ongarrri eta industrietako sustantzi kimikoena da.

Egun esperimentu ezberdinak egiten ari dira. Lurra berrizatzeko balio duten landareak erabiliz. Prozesu hau oso konplexua da, eta landareak sustraietatik ur mineralak eta janaria hartzen dute. Landareak hau guztia betetzeko sustrai inguruan dauden mikroorganismo, bakterio eta onddoen bidez baliatzen dira. Hauek inguruan dituzten zabor kimikoen zubiak hausten dituzte, honela produktu toxikoak ez dira hain kaltegarriak gure inguruarentzat.

Ukranian, Chernobylgo zentral nuklearraren ondorioz kutsatutako lakuetan baltsak eraiki eta girasol landare erraldoiak landatu dituzte. Sustraiak uretan sartu eta material erradiaktibo asko pilatzen dituzte, batez ere estrontzioa eta zesioa. Baina laster ohartu ziren, sustraietan material erradiaktibo kantitate handiagoa zela uretan aurkitzen zena baino.



Erabili daiteke baita industrialdeetako eta konar elementuetako urak garbitzeko. Normalean ihia eta ezpatabelarra erabiltzen dira. Landaketa lehenik; azpian buztin kapa iragazkaitz bat eta gero kareharriz osatutako kapa ezberdinez egin ohi da. Sustraietako mikroorganismoek esker ura azidoak degradatzen dituzte sustraiak.

Badaude beste zuhaitz batzuk ere, hau guztia egin dezaketenak. Zuhaitz hauek zurzuri eta sahatsa dira. Hauek orrien bidez sustraietatik zurrupaturako toxina kanporatzen dituzte. Orriak kanporatzen dituzten toxina kantitatea oso txikia da eta ez du airea kutsatzen.

Zenbait zientzialarik jakin dutenez hirsutak beruna jasotzen du.

Harriateko landareak zinka jasotzen dute.

Iratzeak artsenioa jasotzen du.

Baina kontuan izan behar dugu gure esku dagoela lur eta uren kutsadura momentu askotan. Erabili ohi ditugun ongarrri eta fitosanitarioak. Kontuan izan behar dugu momentu jakinetan erabiltzen eta kantitate txikitan. Hauek guztiak kaltegarriak baitira kantitate handietan, eta nola ez lurpeko urak, ibaiak eta lakuak kutsatzen dituzte.

Amaia Gorospe Bidaola

JAKIN BEHARREKOAK

✓ **Fruituondoak, begi edo eskudetearen txertaketa.** Gure probintzian txertaketa mota hau abuztu bukaera edo iraila hasieran egiten da. Garai honetan hasten baita izerdiaren higadura indarra galtzen eta patroiaren azala erraz askatzen da. Gehienbat sagarrondo eta udareondotan erabiltzen da.

✓ **Lurraren 1.4 milioi km³ ura da** baina %97.5 ur gatzia da eta %2.5 bakarrik ur geza.

✓ **Landarlan taldeak** autorik gabeko egunean Beasainen 'Garraioa eta ingurumena' hitzaldia eman zuen Beasainen. Hauek dira bertan landu ziren puntu garrantzitsuenak:

Adierazleak: kongestioa, segurtasuna eta ingurumen inpaktuak.

Garraio-zerbitzuen dentsitatea: Garraio sektorearen energia-konsumoa EBn: Kontsumitutako energia guztiaren % 30, Errepidezkoak sektore osoaren % 85.

Ekoi-zerbitzuen inpaktu eratorriak.

Irtenbideak: Garraio sistema integratu bat lortzea. Garraio publiko lehiakorra; bere erabilpena bultzatzea. Ibilbide motzetarako oinez eta bizikletaz mugitzea. Merkantzien garraioa errepidetik trenera eta untiatarara. Aire kutsaduraren kontrola eta informazioa zabalitzea.

"Gure esku dago lur eta uren kutsadura momentu askotan. Erabili ohi ditugun ongarrri eta fitosanitarioak momentu jakinetan eta kantitate txikitan erabiltzen jakin behar dugu."

Landar Lan taldeak egindako orrialdea

Taldean parte hartu edo gairen bat aportatu nahi baduzu: ☎ 943 16 12 44

Aizkorri-Altzania partzuergoko txikizioa gelditu!

Oraindik ere eguna joan eta eguna etorri Aralar mendian pisten kudeaketari buruzko eztabaidak mahai gainean dirauen honetan, errealitate gordin bat jarri nahi nuke guztion jakinaren gainean: Aizkorri Altzania-Partzuergokoaren baitan ematen ari den txikizioarena. Hainbat "entresaka" egitearen aitzakipean, hamarka kilometro pista egin dituzte azken bi urteotan.

Hainbat mendi bizkar, gehiago berreskuratzeko modurik ez den moduan utzi dituzte. Esate baterako, Aratz mendiaren magalean, lehenaz gain beste hiru pista ireki dituzte maila desberdinetan. Larrebil, Iramendi,... milaka urtetako ondasun eta ondarea, kontatu ezin adina pisten bidez zeharkatu dituzte.

Mendian (ez honetan bakarrik, guztietan baizik) abeltzain, nekazari, perretxiku biltzaile, ehiztari, artzain, egurzale, mendizale,... jende mota askoren oreka mantendu izan da ehunka urtetan. Guztiek ematen zioten zerbait mendiari eta mendiak ematen zien guztiei. Azken urteetan aldiz, oreka hori apurtzen ari da, eta orekarekin batera mendia bera ere bai.

Egia da, Foru Aldundia eta Partzuergoaren Agintariak urteetan zehar eginiko kudeaketa eskasaren ondorioz

hainbat "entresaka" egin beharra egongo zela; baina horrek ez die basogintza eta bere baitan dauden interesei, egiten ari diren txikizioa egiteko eskubiderik ematen.

Batzuen kudeaketa txarra eta beste batzuen eskrupulorik ezak, Partzuergoa txikiziora daramate. Eta egoera honen aurrean hainbat galdera sortzen zaizkit, ahalik eta azkarren dagokionaren alde-rik erantzunda ikusi nahiko nituzkeenak (nahiz eta galdera hauetariko batzuen erantzuna gutxi gora behera aurretik jakin):

- Zein plangintzaren arabera ari dira triskantza hori egiten?

- Nork egiten dio jarraipena?

- Non dira Foru Aldundia eta Partzuergoaren arduradunak egoera honen aurrean mendiaren iraupena mantentzeko?

- Non dira basozainak (txikieria handiagoen aurrean mendia defendatzearen aitzakipean isun galantak jartzen dituzten horiek) milaka urtetako ondarearen txikizioa egiten uzteko?

- Nor ari da egoera honetatik aberasten, beste ezerk ajola gabe?

Epe laburrean ahalik eta diru gehiena izan da agintarien politika. Horretarako mendia txikitu behar baldin bada, aurrera!!

Nik, idiazabalak eta euskal herritar gisa, nire seme-alaba eta bilobei, nire guraso eta aitona-amonengandik ja-

Akatsak zuzenduz

GOIERRITARRAREN aurreko zenbakian, Segurako kronikan, partzoneriko 48 posturen enkantearen inguruko datuak gaizki argitaratu genituen. Hauek dira gehiena ordaindu ziren 10 posturen datu zuzenak:

Apota 11:	9.075 euro
Agiñaran 3:	8.011 euro
Agiñaran 1:	7.759 euro
Apota 9:	7.542 euro
Agiñaran 5:	6.190 euro
Iturgain 6:	6.011 euro
Larrebil 18:	6.000 euro
Apota 13:	5.800 euro
Aratz 8:	5.120 euro
Apota 15:	5.109 euro

so dudan mendi ondarea uzteko aukerarik ez dut jada. Zergatik? Nire belaunaldian mendiaren kudeaketa, gutxi batzuen poltsikoen mesedetan egin delako.

Goierrri, Arabako Lautada, Sakana eta oro har euskal herritar guztiak, aurrekinik gabeko txikizio honen jakitun utzi eta gutxiengo honi aurre egiteko gonbitea luzatu nahi diet. Horretan ikusiko dugu elkar.

Inazio Imaz (Idiazabal)

JAUREGI

TOLDOAK s/l

Tfnoak.: 943 88 02 43
943 88 01 33

BEASAIN

Aholkularitza

ASEPLAN

Abokautak - Ekonomilariak

Tel.: 943 887 129

Oriamendi Kalea 15, behe BEASAIN

- ✓ Enpresen asesoria eta gestioa
- ✓ Etxebizitza salerosketa
- ✓ Etxeko jabekideen administrazio-lanak

e txekin

www.txekin.net

Zabor-bilketa zerbitzu berria

Irailean zabor-bilketa zerbitzu bateratu berria martxan jarri du Sasieta Mankomunitateak. Zerbitzu honen kudeaketa, Fomento de Construcciones y Contratas, S.A. eta Sukia Eraikuntzak, S.A. artean osatutako enpresen behin behineko elkarteari esleitu zion Sasieta Mankomunitateak.

Edukiontzi eta ibilgailu berriak

Zerbitzu berriak aldaketa asko ekarriko ditu. Herritar gehienek dagoeneko nabaritutako zituzten, herri gehienetan egin baitira lehendabiziko aldaketak.

Lehen fasean, bilketa zerbitzuko edukiontzi eta ibilgailu guztiak aldatuko dira, bai zaborrenak eta baita birziklaketa erabiltzen direnak ere. Edukiontzi gehienak "alboko karga" deritzan motatakoak izango dira, hau da, edukiontziak langile bakar batek eramaten duen kamioi errotoizatu baten bidez hustuko dira, edukiontziaren alboan, paraleloan kamioia jarri eta albo batetik (eskubitik) edukiontzia automatikoki hustuz.

"Alboko karga" sistemak oraingoak baino zarata gutxiago aterako du, hustuketa azkarrago egiten duelako (minutu bat baino ez) eta edukiontzia arrastaka eraman beharrean, lurretik jaso eta airean eramaten duelako.

Bilketa eta garbiketako ibilgailu berri guztiek azken berrikuntzak dakartzate emisio kutsakor, zarata, segurtasun eta mugikortasunari dagokionean.



Birziklaketa aldeko apustua

Zerbitzu berria bestalde, jasagarritasuna helburu duenak diseinatu da eta birziklaketa aldeko apustua egiten du.

Gaikako bilketa industrialdeetara eta azoketara zabalduko da, kartoia eta egurra modu bereiztuan jasoz. Astean behin jasotzen diren traste zaharrak ere zatika jasoko dira (ez nahasian), material gehienak birziklatzeko bidean jarritz, hala nola, egurra (altzariak...), burnikiak (hozakailuak, garbigailuak...) eta tresna elektrikoak (ordenagailu, telebista...).

Arropa eta piletzako edukiontziak

Urrian zehar gure herrietako zenbait gune estrategikotik arropa zaharrak aprobetxatzeko edukiontzi bereziak jarriko dira. Arropa zaharrak Karitasek jasoko ditu. Hauen ondoan pila eta telefono mugikorrenzako edukiontziak ere jarriko dira. Modu honetan herritarrek egin duten eskaera ugariei erantzuna eman nahi zaie.

Sasieta Mankomunitateak eta berau osatzen duten udalek herritarrek zabor-bilketa zerbitzuan emango den urratsa nabaritzea espero dute, izan ere eskualdeak punta puntako zerbitzua izango du hemendik aurrera. Edozein zalanza edo argibide behar izanez gero Sasieta Mankomunitatera (943-161555) jo daiteke.

Alboko kargako zabor-edukiontzi berriek ahalmen handiagoa dute (2.400 litro) egungo edukiontziekin konparatuz (1.000 litro) eta horrek edukiontziek kalean behar duten espazioa murriztu eta oztopoak gutxitzea ekarriko du.

Zabor-edukiontzi berriek tapa hankarekin irekitzeko sistema berezia dute eta beraz hemendik aurrera zaborra edukiontzian sartzea erosoagoa gertatuko da. Horretaz gain, tapa berriro ixtean zaratirik atera ez dezan tapak

amortiguadore bereziak darabmatza.

Beraz, bilketa sistema berriarekin herritarrei zerbitzu erosoagoa eta isilagoa eman nahi zaie, trafikoa oztopatu gabe eta kalean edukiontziek behar duten tokia murriztuz.

Zabor puntuen birmoldaketa

Iraileko bigarren astean hasi da edukiontzi zaharren aldaketa prozesua. Aurrez prestatutako egutegiaren arabera urriarekin batera bukatuko da

erabat birmoldaketa.

Zenbait kasutan zabor puntuak tokiz mugitu behar dira, izan ere, edukiontzi berriak kamioiaren eskubiko aldetik bakarrik hustu daitezke eta aldaketa egitea ezin bestekoa da.

Aldaketa guztiak aldeztu aurretik aztertu eta adostu dira udalbatzararen Zerbitzu Sailekin, udalerriko hiri-egoazariak eta balditza tekniko eta sozialak kontutan izanik. Horregatik egin behar diren aldaketan balorazioa egitekoan ulermena eta lankidetzaren eskatu nahi zaie herritarrei.

Bilketa maiztasun handiagoa

Zerbitzu berria ezartzean, bilketa-maiztasuna ere handituko da. Bilketa-egun bat gehiago ezarri da herri denetan. Hau da, lehen 6 egunetan egiten zen herrietan, esate baterako Beasain edo Ordizian, orain 7 egunetan egingo da.

Garbitasun gehiago

Edukiontzien garbitasunari dagokionean ahalegin handia egingo da. Hemendik aurrera zabor-edukiontziak kamioi berezi baten bidez hamabostetan behin garbituko dira (gaur egun hilean behin garbitzen dira eta ez da nahikoa). Horretaz gain, edukiontzi hauek, bi hilabetean behin, presio handiko pistola baten bidez banan bana eskuz garbituko dira.

Mantenimendu hobea

Edukiontzien mantenimendua asko hobetuko da (pintadak, kolpeak etab. konponduz), zeregin horretarako langile bat eta furgoneta-tailerra egun osoko dedikazioan ari tuko da.

Enrike Enparantza



100.000 lagunetik gora espero dira Lazkaora hurbiltzea Lazkao ikastolazaleen eta euskaltzaleen bilgune izango da urriaren 5ean

Euskaraz bizi nahi dut lemapean, 100.000 lagunetik gora biltzea aurreikusten du San Benito ikastolak urriaren 5ean. 9 kilometrotan, Lazkaomenditik barrena, Lazkao goitik behera zeharkatzeko aukera izango da, tartean, 7 gunetan, izango da zer jan, zer edan, zer ikusi eta zertaz gozaturik.

Irailaren 26an Donostian aurkeztu zuen San Benito ikastolak, aurtengo Kilometroak 2003 ekitaldia. Ikastolazaleei eta euskaltzaleei dei egin zien bertan, Lazkaora hurbildu eta euskararen eta ikastolen aldeko kilometroak egin ditzaten.

Azken orduko ikutuak besterik ez dira falta dagoeneko, urriaren 5erako. Dena prest daukate Lazkaon. Orain, zerura begira, eguraldiari begira jarrita daude lazkaotarrak.

Helburuak

Kilometroak jaiak bi motatako helburuak ditu: batetik behar ekonomikoa, eta bestetik, giza mailakoa. Jose Luis Etxezarretak aurkezpenean adierazi zuenez, "Ikastolak azken urteotan jasoa duen hazkundeari erantzuteko eta egungo hezkuntza premiak modu egokian bete ahal izateko eraikinetan espazio falta dago. Egun dauden eraikuntzak handitu eta espazioa berantolatzeke asmoa dago



Jose Luis Etxezarreta (San Benito Ikastolako ordezkaria), Igor Elorza (Kilometroak 2003ko koordinatzailea), Jose Ramon Zubizarreta (Gipuzkoako Ikastolen Elkartearen lehendakaria) eta Inaxio Usarralde (San Benito Ikastolako lehendakaria).

batetik. Baina gainera, San Benito ikastola herriko eskola bakarra izanda, herria bera, ingurua... erakutsi nahi ditu Kilometroak jaiaren bitartez, eta hein berean, baita

euskararen normalkuntzarako beste ahalegin bat egin ere".

Ibilbidea

Aurreko alean aurreratu ge-

nuen ibilbidea zein izango zen. 9 kilometro pasatxo izango ditu, baina behar edo nahi izanez gero, 7 kilometroko bide laburragoa ere egin daiteke. Bide osoa asfaltaturik edo hormigoiz estalirik dago. Zirkuituan, ingurua-
ren edertasuna azpimarratu nahi izan dute antolatzaileek: Txindokiren magalean, Lazkaomendiko parajeetan edo Oiangurengo parkean murgiltzen da zirkuitua.

Guneak

7 gune izango ditu ibilbideak. Guztietan, ohiko zerbitzuak eskainiko dira: larrialdetarako sorospen postua, izozkiak, otartekoak edota kafea besteak beste. Hurrengo orrian duzue egitarau zehaztua.

1. gunea: Goierri eskola: Hainbat kontzertu izango dira bertan: 'Bide ertzean' edo 'Imuntzo eta Beloki' besteak beste. 'Eroski' izango da gune horretako babeslea eta haurrentzako jolas parkea jarriko du bertan.

2. gunea: Oianguren parkea: 'Kaiku' eta 'Eusko Label'-en produktuez gozatu ahal da bertan eta txikienentzat, animalia erakustaldiak eta jolas parkea ere izango da.

3. gunea: Lazkaomendi: Ibilbideko punturik altuenean kokatzen den gunea da hau. Gazte giroan pentsaturik, musika emanaldi ugari izango dira: 'Sorkun', 'Mal de ojo', besteak beste.

4. gunea: Iztueta: Euskal kutsuko gunea izango da. Trikititixa doinuak, bertsolariak... 'Euskaltel' izango da gune

San Benito ikastola

40. urteurrena ospatzeko ari dira aurtengo Lazkaoko San Benito ikastolako. 1963. urtean sortu zen Lazkaoko ikastola. Jaxinto F. Setienek euskarazko eskolaren, ikastolaren, aldeko apustua egin zuen Lazkaon. Ametsa zirudiea egi bihurtzeko Lazkaon hainbat guraso, irakasle eta laguntzaile bildu ziren. Diru laguntzarik edo agintari askoren babesik gabe hasi zuten orduan bidea. Erlijio erakundearen babesean, herriko lokal ezberdinetan... eman zituzten ibilbidearen lehen metroak.

Hasierako 15 ikasleak 850 dira gaur. Eta lazkaotarrak soilik ez, eskualdeko hainbat herritatik ere etortzen dira. 0 eta 18 urte bitarteko 850 ikasle, 66 profesional, 580 familia.

Omenaldia

Urriaren 5ean, eguerdiko 12etan, Maizpiden, omenaldia egingo zaie San Benito ikastolarekin eta oro har euskararekin zerkusia duten hainbat lazkaotarrei eta hainbat erakunderi. Ikastolen sortzaileen artean, Jazitno F. Setien eta Aitor Muruamendiaren zena (ekitaldian bere emazte Mari Karmen Aranburu izango da) eta ikastolako lehenengo bi andereñoak, M. Ixabel Aldasoro eta Mari Karmen Eizagirre omenduko dira. Lazkaoko beste hiru erakunde ere bai: beneditarrak, Maizpide Euskaltgia eta Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkarte.



honetako babesle.

5. gunea: Orobione: Herrigunean sartuta, hauxe da gune garrantzitsuenetako bat. Goizean omenaldi ekitaldia bertan kokatzen den Maizpide euskaltegian ospatuko da, eta egun osoan zehar, EITBko hainbat programa ere bertatik egingo dira. Joseina Etxeberrriaren Disko-festa eta Betizuak izango dira besteak beste, EITBek babestutako gunean.

6. gunea: Gurutze: 'Kutxa'-k babesturiko gune honetan kultura ezberdinei egin zaie txokoa, Lazkaoren soziologiaren ispilu. Donostiako Galiziako etxea edo Extremeño taldea etorriko dira bertara, beren herrietako ohiturak erakustera. 'Obrint pas', Kataluniako modako taldearen edo Galiziako 'O jarbanzo negro'

musikarien kotzertuez gozatu ahaliko da. Gune berean folk kutsuko doinuak egiten dituzten bi euskal taldek ere kontzertua emango dute.

7. gunea: Lazkaoko plaza: Herriaren bihotzean kokaturik dagoen gune honetan egun osoan izango da zer ikusia. 'Alaitz eta Maider' (aurtengo kantaren egileak), 'Tapia eta Leturia' edo 'Drindots' lazkaotarrak izango dira taula gainean. Txikientzako, berriz, pailazoak izango dira. Gune honetan, 2 jantoki egongo dira: paella erraldoia eta sagardotegi menua jateko aukera izango da.

Enpresa gunea

Goierriko enpresen eta zerbitzuen lana ikusgai izango da 16 standetan, Gurutzeko gunean.

Kilometroak abestia

Alaitz eta Maider & Jokin Lasa

Deika ari da mobila
Nor ote nire bila?
Mezuren bat isila...
Jasotzen ditut mila.

Bat gehi bi hiru mezu
Lazkaotik datoz, aizu!
Haserre eta kexu
Entzun, entzun itzazu:

**Gaur, bihar eta etzi
nahi dut euskaraz bizi
goiz, arrats eta gauaz
bizi nahi dut euskaraz
berriz esango dizut:
euskaraz bizi nahi dut**



Mezua da bakarra
Erantzuna, azkarra:
Nirea, lazkaotarra,
Da zure deiadarra.
Jakín (e)zazu gaurdanik
Ez zaudela bakarrik
Zurekin bat eginik
Hauxe esan nahi dut nik:

Gaur, bihar eta etzi...

Kilometroak egin
Nahi dituzu gurekin?
Zatoz Lazkaora arin
Zu gabe ez da berdín.

Egunak badu izen:
Urriak bost, hain zuzen.
Zatoz eta goazen
Oihukatzeraz ozen:

Gaur, bihar eta etzi...

GOIERRI		OIANGU		LAZKAOMENDI		IZTUETA		OROBIONE		GURUTZE		IKASTOLA / PLAZA		
1 GUNEA		2 GUNEA		3 GUNEA		4 GUNEA		5 GUNEA		6 GUNEA		7 GUNEA		
														
09:30	Egun guztian zehar Haurrentzako jolas-parkea	Egun guztian zehar						Egun guztian zehar Irratiaren musika zirkuito osoan		Egun guztian zehar • Zubi tibetarra • Tirolina		Zirkuito Irikiera		09:30
10:00	Bertsolari gazteak							Ikusi Irratia zuzenean. Orduerdi zuzeneko konexioa Euskadi Irratiaren emisioarekin. Tarteak lehiaketak, jolasak eta musika zuzenean Mac JEARA'S BAND taldearekin				Egun guztian zehar Asto-gurdian txangoak		10:00
10:30	Aurtzaka Dantza Taldea	Artisau azoka				Txalaparta eta bertso jarriak				Donostiako Extremeño Kultur Zentroa		Oin-Arin Dantza Taldea (Meza)		10:30
11:00	Egun guztian zehar Goming-a			PETTI		Herri-Kirolak:						Egun guztian zehar • Arte erakusketa • Eskalada		11:00
11:30	BIDE ERTZEAN	Arku tiraketa				Aizkolari beterranoak. Goierriko taldeak Amalur trikiti-pandero taldeak alaiturik		Mac JEARA'S BAND taldearekin		Donostiako Galiziako Etxea		TXATUNGABEMBE		11:30
12:00		Hegazti erakusketa Erakustaldia 11:30etan eta 15:30etan		SORKUN				Omenaldia Maizpiden Laguntza errenda Maizpiden				Bertso Antzerkia		12:00
12:30	Tutik ere Clown					Bertso saioa				PIN PAN PUN BAND				12:30
13:00	TRIKIZIO	Haur jolasak												13:00
13:30														13:30
14:00		Puzgarriak		MAL DE OJO		JOKIN LASA		BETIZUAK				ALAITZ eta MAIDER		14:00
14:30		Beisbol-tunela												14:30
15:00	IMUNTZO eta BELOKI			Bakarrizketa saioa		KOLDO eta ARANTXA				BRIGANTHYA		Potxin eta Patxin		15:00
15:30	Tutik ere Clown	Asto autoktonoen erakusketa						Ikus-entzunezkoa instal akzioa Maizpiden JOSEINA ETXEBERRIA Disko-Festa				TAPIA eta LETURIA & PATXI PEREZ		15:30
16:00	Harrijasotzaileak: Perurena aita-semeak													16:00
16:30				JOUSILOULI		DJ BULL				OBRINT PAS				16:30
17:00	Amaiera	Amaiera						Ikus-entzunezkoa instal akzioa Maizpiden						17:00
17:30				Amaiera								DRINDOTS		17:30
18:00						Amaiera				O JARBANZO NEGRO				18:00
18:30										Amaiera				18:30
19:00								Amaiera				Amaiera		19:00

10:30etan BENEDITARREN KONBENTUAN: Meza eta Gregoriano emanaldia.

IBILBIDEAN ZEHA ETA EGUN OSOZ: Tolosako dultzaineroak, Urruhako Kukuxtu eta Kuskola txarangak, Dandarruko Hankapaloak, Zubietako Joaldunak, Txatungabembe, Lasarteko Amalur trikiti-pandero taldea...

10:30etan BENEDITARRAREN KONBENTUAN: Meza eta Gregoriano emanaldia.

IBILBIDEAN ZEHA ETA EGUN OSOZ: Tolosako dultzaineroak, Urruñako Kukuxtu eta Kuskola txarangak, Ondarruko Hankapaloak, Zubietako Joaldunak, Txatungabembe, Lasarteko Amalur trikitixa-pandero taldea...

Aitziber Garmendia aktorea "Antzerkia afizio bezala ikusten dut ez ofizio bezala"

Aitziber Garmendia txiki-txikitatib dabil antzerki munduan. Eskolan lehenengo, Beasaingo Antzerki Eskolan hurrena, Donostian 'Artes Escenicas' ikasketak gero... Tentazioak produkzioak eskaini zion profesionalki antzerkian lan egiteko papera. Hortik, segidan, etorri da telebista. Orain, ETB-1eko 'Martin' telesailean, alaba zaharrenaren, Maiderren, paperean ikusten dugu asteazkenero.

Zer moduz ikusi duzu zure burua telebistan?

Inoiz telebistan ikusi gabe, aurreneko aldia zen, eta arraroa egiten da. Ohituko naize-la uste dut.

Egin duzunarekin gustura?

Bai, orain arte antzerkian ari-tu naiz eta egia esan lan egi-

teko antzerkia gehiago gusta-tzen zait. Baina denetik proba egin beharra dago eta telebis-tan ere gustura aritu naiz.

Telesailean Maider zara, 17-18 urte neska. Zuk 20 urte dituzu, 21 egiteko.

Bai, gazteagoaren papera eman didate. Hori espero nuen. Normalean beti hala ematen didate, gaztetxo aurpegia daukadalako edo. Egia esan, orain arte lagundu egin dit ume aurpegi hori eduki-

tzeak. Orain arte kexatu egi-ten nintzen horregatik, baina orain isiltzera noa, oso ondo etorri zait eta.

Atal guztiak, 13 kapituluak, grabatuak dituzue dagoeneko. Hor-tik aurrerakoak ikusleen arabera etorriko dira, ezta?

Udan egin ziren grabazioak. Abuztuaren bukaera aldera bukatu genituen. Astebeteko oporrak bakarrik izan ditut, baina oso ondo pasatu dugu grabazioan. Hemendik aurre-

rakoa, audientziaren arabera dago.

Joxe Ramon Soroiz eta Elena Iru-reta bezalako aktoreen ondoan aritzeak zer esan nahi du?

Horiekin lan egitea handia da. Orain arte ikasi ez dudan guztia ikasi dut hauekin. Horrelako aktoreekin lana egitea gozamen da, ondo pasatu eta asko ikasten da. Izena baka-rrik ez daukate, onak dira la-nean ere.

Nola iritsi zara telesail honeta-ra? Kasting-ak eta abar egin be-har izan al dituzu?

Ez. Aurretik Tentazioa an-tzerki taldean aritu naiz. Hori izan da nire lehenengo lan profesionala. Telesaio hau Globomediarekin koproduk-zioa izan da eta Tentaziokoen lana aktoreak aukeratzea izan da. Suertea izan dut eta ez dut kasting-ik pasatu beharrik izan.

Kasting asko egin behar izaten al dira?




Garbitasunak
Jai zoriontsuak denoi!
☎ 607 140 721
ZALDIBIA

X A X O
KAMIXETA ESTANPAZIOA
FOTOKOPIAK KOLORETAN
☎ 943 02 73 55 Faxes: 943 02 79 39
San Inazio, 5 BEASAIN

Olagi Sagardotegia
Eguerdietan ere zabalik
Urte guztian sagardotegiko menua eta karta
☎ 943 88 77 26 **ALTZAGA**

**KONTSULTORIO
MEDIKU-KIRURGIKOA**
Goierritarrentzako mediku zerbitzu espezializatuak
Ordua eskatzeko tfnoa: 943 08 55 60 Faxes: 943 08 55 61
Nafarroa Etorbidea, 25 - 2. **BEASAIN**

Nik suertea izan dut. Asko ez ditut egin baina egindakoetan ez da ondo pasatzen.

Aurretik zer egin izan duzu?

Tentazioak taldera iritsi eta handik ETBtik deitu zidaten bi bakarriketa egiteko 'Irrikitan' programarako. Eta beste guztia segidan etorri da. Beraz, ondo. Behar duenak ikustea da kontua eta horretan eduki dut suertea.



Bakarriketetan zer moduz?

Ondo. Hori ere beste genero bat eta denetik probatzea gustatzen zait. Eszenatoki gainean bakarrik zaude eta horrek alde batetik lasaitasuna ematen du. Jendearekin lanean ari zarenean norberagatik besteari kalte egitea ere! Bakarriketan zerbait gaizki eginez gero, norberak konpondu behar du. Testua oso ondo ikasita eraman behar da.

Aktore asko daude, baina telebistan atera ezean lanik ez dute la egiten dirudi.

Hori egia da. Baina ni aspalitik nabil antzerki munduan. Antzerkirako grina txikitatik datorkit. Eskolan zoratzen egoten nintzen antzerkiaren ordua iristeko. Gero 13 urteekin Beasaingo antzerki es-

kolan hasi nintzen. Handik gero Donostian, hiru urte egin nituen 'Artes escenicas' ikasketak. Orain Zuzenbidea ikasten ari naiz. Hori jakinda egon behar duzu. Horretan lanean ari zarenean atera daiteke ala ez. Baina egiten duzuna gustatzen zaizulako egiten ari zara, ez zerbaiten zain zaudelako.

Aktore larro ikasteko Euskal Herrian ezer arauturik ez dagoela salatu izan dute aktoreek askotan.

Hori egia da. Izaera ofizialeko ezer ez dago. Prestatzeko aukera gutxi daukagu hemen.

Madril aldera joateko asmorik ba al daukazu?

Batere gogorik eta asmorik ez

dut. Gainera Zuzenbidea ikasten ari naiz. Zerbait zehatza ateratzen bada gustura joango naiz grabatzera. Baina bertan gelditzera joateko asmorik ez daukat.

Nola uztartzen dituzu Zuzenbidea eta aktore lana?

Ez dakit. Hasieran garbi neukan Madril joango nintzela Arte dramatikoak ikastera. Baina behin selektibitatea eginda, gauzak birplanteatu nituen. Antzerkia egitea gustatzen zait, baina hortik bizibiderik ez dut ikusten. Afizio bezala ikusten dut eta ez ofizio bezala. Zuzenbidearekin hasi nintzen proba bezala eta ondo joan zait orain arte. Tarte horretan lana atera zait eta nik uste aukera egokia egin

nuela. Gainera, abokatu bezala ere nahiko antzerki egin behar izaten da, gehiegi. Beraz, ez zait gaizki etorriko.

Aktore bezala, zein da zure ametsa?

Nik uste ametsa betetzen ari naizela. Egutero esaten dut, ez dut sinisten gertatzen ari zaidana. Ez naiz Hollywoodera joan baina nik hemen bizi nahi dut eta hemen bizi naizela nire gustuko lanean aritzea... Nire ametsa orain arte bezala jarraitzea da.

Euskaraz bakarrik lan egin duzu ala gaztelaraz ere bai?

Gaztelaraz koloka gehiago izaten dut. Ez daukat soltura berdinik. Dena den, euskara batuan egin behar izatea asko kostatzen zait, agian erdaraz egitea baino gehiago. Arraroa egiten zait, askotan gainera oso artifiziala ikusten naiz.

Etxean nola ikusten dute zuk aktore nahi izate hori?

Etxean gustura daude, baina hasiera-hasieratik beti babesa eman didana ama izan da. Orain telebistan ateratzen hasi naizenean denek babesten naute baina amak beti lagundu nau.

Arkupe
tapizegia
Tapizeak - Ohe estalkiak - Endredoiak
Mantak - Maindireak - Storeak
Toailak - Gortinak eta osagaiak
J. M. Barandiaran Plaza
943 88 00 84 ORDIZIA

Pottoka
KAFETEGIA
Legazpi kalea, 3 ORDIZIA
● Pintxo hotz eta beroak
● Ogitaratekoak



Xenkegi
DEKORAZIOA

Tel: 943 889 113 Faxe: 943 028 429
xenkegi@euskalnet.net
Senpere Merkatalgunea, 25

**Sukaldeak
Bainuak
Ateak
Zoruak
Armairuak**

BEASAIN



Santa fe jaiak Zaldibian

Urriak 3, ostirala:

19:00etan: Olalde baseritik herriko plazara Mondeju desfilea, herriko txistulari, Goiztiri txaranga, Iztueta dantza taldeko dantzari eta danbor joleekin.

Ondoren: Plazan mondejula-leen martxa. Mondeju eta mondexilaren txupinazoa. Ondoren euri berezia. Amaitzeko plazan kalejira.

20:00etan: plazan, mondejuak dastatzeko aukera izango da.

22:00etan: Gipuzkoako bertsolari txapelketa 2003. Kanporaketa saioa: Joxe Munduate, Alfonso Jimenez, Alaitz Sarasola, Iban Urdangarin, Iker Zubeldia eta Bixente Gorostidi.

23:00etan: 'Joselu Anaiak' musika taldea.



Urriak 4, larunbata:

11:30ean: Diana Dultzaine-roekin, erraldoi eta buruhandiekin.

12:30ean: Haur jolasak.

12:30ean: Ordiziako Laguntasuna Errondailaren saioa.

16:30ean: Xurdirin, ipotxen mundua, haurrentzat jolasak.

17:30ean: Pilota partiduak.

Lehen partidua: Retegi VI - Eskudero, Azpiroz - Mendiluzren aurka. Bigarren partidua: Esain - Errasti, Mendizabal-Peñagarikanoren aurka.

Ondoren, Udalak deituta 'Elkarrizketaren alde, ilegalizazioen aurka eta euskal preso-

ak Euskal Herrira' lemapean manifestaldi ixila herrian zehar.

Ondoren afal ordura arte: Herriko trikitilariak.

23:30ean: Dantzaldia Laiotz musika taldearekin

Musika atsedenaldirian, goizeko leian: Play back lehiaketa. Saria: Musika denda batean erosteko bonoa. Mozo-rra lehiaketa. Saria lehenengo hiru taldeentzat izango da.

Urriak 5, igandea:

11:00etan: Meza Nagusia Koru Parrokialak alaiturik.

12:00etan: Iztueta dantza taldearen saioa.

Ondoren, herriko txistulariekin kalejira.

18:30ean: Herri kirolak. Aizkolariak: Miel Mindegia eta Iñaki Azurmendi buruz



ARRESE
Jatetxea

Festa onak opa dizkizuegu

☎ 943 88 17 14 ZADIBIA

BIOK ALKAR
auto konponketa

ABS frenuetan eta injezioan
tailer espezialista

JAI ZORIONTSUAK PASA DITZAZUELA!

☎ 943 88 01 60
Mendi-Ondo ZALDIBIA

NAZABAL
ERRETEGIAk

*Jai zoriontsuak
opa dizkizue!*

☎ 943 88 71 46
Sta. Fe Kalea ZALDIBIA



ZALDIBIAKO
UDALA

ZALDIBIKO
HERRIAK HERRIKO
JAIETAN PARTE
HARTZEKO
GONBITEA EGITEN
DIZUE



Loradenda

Santu Guztien egunerako enkarguak
hartzen ditugu

- ✓ Ezkontzako lora sortak
- ✓ Kotxe eta eliz apainketak
- ✓ Koroia
- ✓ Lora apainketa mota guztiak
- ✓ Larunbat arratsaldetan zabalik

☎ 943 889 883
Kale Nagusia, 27 ORDIZIA

buru. Lana: seina kanaerdiko; bina hirurogei ontzako; bina oindiko. Ondoren, Aimar Irigoien 16 urteko harrijasotzaille gaztearen erakustaldia.

20:00etatik 21:30era: Dantzaldia Akelarre taldearekin.

23:30etik goizeko 1:30era: Dantza saioa Akelarre taldearekin.

Urriak 6, astelehena: Santa Fe eguna:

11:00etan: Meza Nagusia eskaintzak, dantzariak eta Koru Parrokialak alaiturik.

11:30ean: Zezenak eta potto-kak herriko plazan

12:00etatik 14:00etara: Mendizabal eta Peñagarikano bertsolarien eta herriko trikitilarien saioak herrian zehar.

16:30ean: Mozorro festa, haurren play back-a eta me-



rienda. Oharra: Gurasoak ere mozorrotu daitezke.

Ondoren, Goiztiri txaranga-ekin kalejira pilota partidurantz.

18:00etan: Afizionatuen pilota partidua. Lehen partidua: Alex Sukia - Mikel Nazabal, Xabat Otegi - Aitor

Otegiren aurka. Bigarren partidua: Aritz Saez - Ibon Gurruixaga Julen Retegi - Iñaki Iparragirreraren aurka.

19:30etik 21:30era: Herriko trikitilariak kalean zehar.

22:30ean: Tapia eta Leturia-ekin erromeria.

Urriak 7, asteartea:

12:00etan: Hamaiketako jubilatuentzat.

11:00etatik 13:00etara eta 15:30etik 18:30era: Gaztelu puzgarriak.

22:30ean: 'Kutsidazu bidea Ixabel' antzerkia.

Urriak 11, larunbata: Koarila eguna:

13:00etan: Koadrilen irteera plazatik, Los incansables txarangarekin.

14:30ean: Bazkaria herriko plazan.

Ondoren, Los incansables txarangak girotuta, koadrilen arteko jokoak.

23:00etan: Dantzaldia Izotz musika taldearekin.

ILLATI TABERNA

- Mondeju pintxo eta etxeko solomoa
- Ogitartekoak
- Afariak

Santa Fe ☎ 943 88 31 05 ZALDIBIA

IÑAKI ERAUSKIN HARATEGIA

Mondeju ederrak!

☎ 943 88 30 87

Santa Fe Kalea ZALDIBIA

GUREA MERTZERIA (PEPITAN DENDA)

Arropa denda

- ◆ Emakume
- ◆ Gizon
- ◆ Haurrak

Txindoki, 23 ☎ 943 88 57 98 ZALDIBIA



**Jaiak ospatu eta
falta direnak
gogoan**

JOXE PANE HERRI OSTATUA

☎ 943 88 20 47

ALBISU ETXEA

ZALDIBIA

ZUBI ONDO TABERNA

☎ 943 88 28 76 ZALDIBIA

Joxi

Iturgintza - Berogintza - Gasa

Carrefour merkatalgunea

Tel. - faxa: 943 88 19 87 - 676 178 488
OLABERRIA

Jai bakarrerako bi egitarau

Gaur hasiko dira Zaldibian Santa Fe jaiak. Datorren larunbatera arte jaia eta umore izango da nagusi herrian. Urriaren 3, 4, 5, 6, 7 eta 11n izango dira jaiak, hain zuzen ere. Halere, aurtengoan, Txosna Batzordeak egitarau alternatibo bat egin du.

Gainera, 2003ko Santa Fe jaietan ez dira, urtero moduan, txosnak egongo. Oraingoan, karpa erraldoi bat egongo da herriko plazan. Goiz goizetik hasiko da bertan festa, eta gaueko ordu txikiak arte luzatuko da. Karpa horretan edariaz gain, jatekoa



ere izango da. Bertan musika emanaldi ugari izango dira.

Hona hemen Txosna Batzordearen Santa Fe jaietarako egitaraua:

Urriak3 , ostirala:

20:30ean: Txupinazoa eta karparen irekiera.

Urriak 6, astelehena:

17:00etan: Te goxo-goxoa.

20:00etan: Kontzentrazioa.

Urriak 10, ostirala:

Preso eta iheslarien eguna:

Arratsalde partean: Hau-
rentzak jokoak.

20:00etan: Manifestazioa.

Ondoren: Kantu afaria.

Gauean: Dj Bullen eskutik euskal musika emanaldia.

Urriak 11, larunbata:

Iluntzean: Ttakunpa taldearen saioa.

Urriak 12, igandea:

19:30ean: Mondejuaren entierroa.

Eduene Soraluze

Beti Gazte Elkartarako arduraduna behar da

Orain dela 15 urtetik gaur arte, Maritxu Maiza eta bere seme alabak egin dira Beti Gazte Elkartearen kargu. Urriaren azkenean, ordean, orain arte elkartearen ardura izan dutenek utzi egingo dute. Beti Gazteko kideek adierazi dutenez, oso gogoa izango dute Maritxu eta bere sendiak orain arte izandako jokaera, baina, hutsune hori betetzeko beste pertsona baten beharra dute. Leku hori bete ahal izateko, derrigorrezko baldintza da euskara ondo menderatzea. Aurkezteko asmoa dutenek Juanita Murua, Beti Gazte Elkarteko lehendakariari, adierazi beharko dio. Izena emateko azken eguna urriaren 15a izango da.

Gimnasia ikastaroa

Urriaren 6an arratsaldeko 15:45ean hasiko da gimnasia-ko ikastaroa Joakin Elkororen eskutik. Herriko frontoian egingo da ikastaroa, horretarako izena aldeztu aurretik eman behar da Udaletxean. Iaz bezala, aurtengoan, astelehen eta asteazken arratsaldetan 13:45etatik 14:45etara izango da gimnasia.

Aerobic-eko ikastaroa

Urriaren 1ean egin zen Aerobic-eko egunak eta ordutegia erabakitze bileran. Izena aldez aurretik ematea komeni bezela ere oraindik eman liteke udaletxean (943801724) edo Mandioa dendan (943801505).

Erretore aldaketa Zeraingo parrokiaren

Irailaren 14an, erretorearen aldaketa izan zen Zeraingo parrokiaren jubilatuen eguneko Meza Nagusiarekin batera. Hiru urtetan Jesus Arsuagak eraman du Zeraingo parrokiaren ardura; orain, ordean, leku aldaketa dela eta, Josu Elortza izango da Zerainen erretore. Ospakizun hau zela eta, Patxi Aizpitarte, Gipuzkoako gotzainordea izan zen Zerainen. Berak gidatu zuen meza Nagusia eta apaiz baten agurraren eta bestearen sarreraren berri eman zion jendeari.



BEROGAS

ITURGINTZA - KALEFAZIOA - GASA
BAINU ETA SUKALDEKO INSTALAKUNTZAK
ETXEBIZITZEKO AIRE EGOKITUAK
BERRIKUNTZA LANAK
GREMIO GUZTIEN ARDURA



BEROGAR

SUKALDEKO ETA
BAINUKO ALTZARIAK



BULEGOAK-LANTEGIA
USABAL, 11-A
TOLOSA
Tel.: 943 672 620

POLIURETANOZKO LEIHOAK



ERAKUSKETAK:
SAN FRANTZISKO, 10
TOLOSA
Tel.: 943 653 307



**euskrz
2zi ny dt***
KMK'03 LAZKAO
* Euskaraz Mili erdi dit. Kilometroak 30 / Lazkao



SASIETA MANKOMUNITATEA ERE EUSKARAREN ALDE



Aurtengo Kilometroak gure mankomunitate barruan antolatu direla ospatzeko Sasietak zozketa bat prestatu du:
Lagundu iezaguzu gure maskotari izen bat jartzen.
NOLA DEITUKO ZENIOKE GURE MASKOTARI?



Kilometroetako egunean Ikastolan jarri behar dugun stand-era hurbildu eta zure proposamena utz iezaguzu.

Parte hartzen duzuen guztion artean sari hau zotz egingo dugu:
Nekazaritza-turismoko baserri batean asteburuko egonaldia bi lagunentzat



Larruntza errota eta zerrategiaren berrikuntza

Ataungo ondarea berreskuratu eta zaindu nahiean, Udalak Errotatxoko zerrategia eta kanal guztiaren zaharberritzeari ekin dio. Azken urte hauetan errota eta bere inguruan ekimen ugari burutu ditu.

Joxemiel Barandiaran eta Euskal Mitologiaren inguruan lantzen ari den proiektuan garrantzi handia ematen zaio Larruntza multzo honi, hala nola, etorkizuneko elementu garrantzitsu bilakatu nahi dute. Helburua, zerrategia urtean zehar zenbait egunetan martxan jartzea da.

6 mendeetan martxan

Larruntza multzo hidraulikoa Ataungo San Gregorio auzoan kokatzen da, Agauntza eta Lauztierreka ibaien urak jasotzen ditu. Sei mendeetan zehar martxan egon den errota elementu ezberdinek osatzen zuten: bi errota, burdinola, zerrategia, zentral hidroelektrikoa, elementu hauek mugitzeko beharrezkoa den azpiegitura, bi presa, bi ubide, bi adaptapara, eta abar.

Historian zehar, bakoitzaren garapena eta erritmoak oso ezberdinak izan dira, ez dira denak batera funtzionamenduan egon: errota, errota eta burdinola, errota eta errotatxo, turbina eta zerrategia.

Sei mende hauetan herrian izandako hamaika gorabehera eta datu ugari azaltzen dira eraikin honen inguruan: Lazkaoko Markesarekin izandako borroak, herritarren arteko liskarrak, zenbat aldiz izan diren deseginak,... Ataungo historian eta gure arbasoen bizimodua gertutik ezagutu



ahal izateko toki egokia dela aipatu behar.

Aberastasun handikoa

1998 eta 1999an auzolanderiak burutu ziren ingurua garbitu eta txukundu asmoz. 2000. urtean Errotatxoaren zati bat berritua izan zen. 2001ean Aranzadi Zientzia Elkartek ikerketa arkeologikoa burutu zuen eta ikerketa horretan Larruntza multzo hidraulikoa aberastasun eta interes handikoa dela ebatzi zuen, Ataungo historia eza-gutu eta herriko industria nagusienak nola funtzionatzen zuten jakiteko aukera ematen duelako. Aipatu behar da zerrategia garrantzi handikoa dela Gipuzkoan, Zeraingo zerrategiarekin batera kontserbatzen den bakarrenetarikoa baita.

Mantenimendua aipatu behar da ez dela ona. Errotatxoari dagokionean, teilatuaren konponketa egin zenean, itogin arazoei amaitu zuten, orain ekialdeko horma sendotu beharko litzateke.

Zerrategia egurrezkoa da, hezetasunaren aurrean bere azalerak duen porotasunaren ondorioz ur lurrina bereganatu egiten du eta dilatazio edo handitze prozesua ematen da. Hezetasuna eta xilofagoen eragina murriztu nahi da, ur kanalizazio sistema ezarri eta teiltatua konpondu. Bertan aurkitzen diren makina eta lan tresnak ere berritu behar dira.

Zaharberritze lana

Lauztierrekako ubidean sasi garbiketa egin behar da eta Agauntzako ubidean izaera berreskuratzeko atearen sistema olioztatu, hustubidean atea ezarri eta ubidean dau-den hainbat kubo kendu.

2003. urte honetan, Ataungo Udala Errotatxoko zerrategia eta kanal guztiaren zaharberriketa sakon bat burutzeko pausoa ematera doa, asmoa obra hauek azaro bukaerarako amaituta izatea da.

Doltza Barandiaran

Sutea

Joan zen larunbatean, hilak 20, goizaldeko 3,30ak aldera Arterta baserri azpiko lurretan sutea gertatu zen.

Oraindik sua nondik sortu zen jakitea ezinezkoa bada ere, ez dirudi norbaitek sua nahita eragindakoa izan zenik. Azkenean kalteak ez dira handiak izan.

Sua itzaltzeko ahalegine-tan Legazpiko eta Adunako erretenoekin batera hainbat eta hainbat herritar lanean aritu ziren. Ataungo Udalak eskerrak eman nahi dizkie sua itzaltzen lagundu zuten guztiei.

Herri antzokirako pertsona bat behar da

Ataungo Udalak inolako abisurik bidali ez badigu ere, jakin dugu herrian pertsona bat behar dela Herri Antzokian zinea bota eta garbiketa lanak egiteko. Guregana eskakizuna iritsi ez denez, ezin dugu zehaztasun gehiago eman, interesatuok Udaltxera bertara jo dezatela.

Ataun-Lazkao arteko oinezko herribidearen irekiera

Iragan asteburuan burutu zen Ataun eta Lazkao arteko oinezko herri bidearen irekiera. Inaugurazio horretan herri bietako Udalek parte hartu zuten; baita Lazkaoko eta Ataungo Herri bilguneak ere. Herri Bilguneetako zinegotziek ekitaldi hau beraien egoera politikoa salatzeko aprobetxatu zuten.

Jatorrizko euskal animalia espezien

IV. erakusketa

Urriaren 19an, igandea, gure herrian jatorrizko euskal animalia espezien laugarren erakusketa ospatuko da. Aurreko urteetan izandako arrakastaren ondoren aurtengo laugarren ekitaldia antolatzerako orduan iaz izandako partaide-tza zabala kontuan izanik, bera baieztatu eta Euskal Herriko probintzia eta elkarte guztiak gure herrian izan daitezien ahalegin berezia egin da. Erakusketa Euskal Herri mailan jatorrizko euskal animalia espezien erakusketen artean bakarrenetarikoa da eta benetan finkatua aurkitzen da.

Animaliak gertutik ezagutu eta ikusteaz gain abere horietatik ekoizturiko produktuak dastatu eta erosteko aukera ere izango da. Euskal Oilo Elkartekoek bertan erreko dituzten euskal oilaskoak dastatzeko aukera ere izango da.

Erakusketaren aurkezpena

Ormaiztegiko zelai eta zubipe kiroldegi inguruan aurkeztuko diren abere horietatik asko bertako arrazak izateaz gain desagertzeko arriskuan aurkitzen direla da azpimarragarria. Azken urte hauetan abere horien egoeraz oharturik hainbat elkarte, gizabana-koen etenik gabeko lanari esker, abere horiek babestu eta desagertu ez daitezien ahalegin berezia egiten ari dira.

Hasiera-hasieratik erakusketa antolatzeko abiapuntua, kudeaketa eta garapena berta-

ko espezien elkarten eskutik iritsi izan da, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Ormaiztegiko Udalak beraiekin bat eginik bitartekaritza lana burutu izan dutelarik. Erakundeez gain hasieratik herriko Irizar entpresaren babesa eta laguntza ere jaso da.

Egun abere horiek kultur ondarearen atal garrantzitsu bezala onartzen dira, eta ez da ukatzen fauna basatiaren balioa paisaia eta ingurugiroarekiko, ezta hura desagertzeaz babestu beharra ere.

Aziendak bi horiek biltzen ditu: batetik, abere horiek euskal paisaiaren osagaiak dira eta bestetik, euskal abeltzainek mendeetan zehar egindako lanaren emaitza dira.

Goizean zehar izango da ikusgai erakusketa, arratsaldean berriz bi ekitaldi nagusi izango dira, bata betizu eta pottokaren arteko dema 500 kiloko lerarekin zelaiean eta bestea zaldi lasterketa.

Espezie guztiak ikusgai izango dira

Euskal animalia espezie bezala onarturik daudenak gure herrian ikusgai izango dira besteak beste betizu, terreña, pirenaiak, pottoka, Jaca Navarra, Burguete, Euskal Herriko mendiko zaldia, euskal oiloa, euskal txerria, sasiardiak, ardi latxak, karrantzako ardiak, enkarterrietako astoa, euskal erlea, ahuntz azpi gorriak, euskal ardi txakurrak eta bertako ibai karramarroa.

Jubilatuen eguna

Aurtengoan jubilatuek ere beraien eguna prestatu dute. Berau ere urriaren 19an izango da. Egun guztirako egitarau zabala prestatu dute, goizeko 12etan herriko parrokiari Meza Nagusia hildako elkartekide guztiei eskeinia izango dena. 14:30etan Lierniko Mujika Jatetxean bazkaria. Liernira joateko autobusa 13:30etan elkartetik bertatik aterako da. Bazkariaren amaieran opariak zozketatuko dira.

Bazkarian parte hartzeko izenemateak elkartearen bertan burutu behar dira, urriaren 9 eta 10ean, goizez 12:00etatik 13:00etara eta arratsaldeaz 16:00 etatik 19:00etara bitartean.

Giro ona Sanmigeletan

San Migel inguruko ospakizunak giro oso onez burutu ziren. Goizeko 12:00etan hasi zen toka txapelketan 29 partaide izan ziren, txapelduna Josu Lasa izan zelarik bigarrena berriz Alain Tomas. Jarraian jokatu zen harrikalari lehiaketan berriz, Xabier Lasa izan zen garaile harria 24,94 metro bota zuelarik, bigarren postua Haritz Maizentzat izan zen berak 24,30 metrora jaurtiki zuelarik. Dena den proba amaitzerako beste tiraldi batean markarik onena Haritz Maizek jarri zuen harria 25,10 metro bota zuelarik.

Arratsaldeaz jokatu zen mus txapelketan ere giro bikaina eta partaidetza handia izan zen. Bikote irabazlea Ion Eziolaza eta Haritz gisasolak osaturikoa izan zen, bigarren postua berriz Etxarri aita semeek lortu zuten.

Haurren ekitaldiak giro bikainez burutu ziren, baita eguna amaitzeko ospatu zen herri afaria ere. Igandean burutu zen mendi bizikleta proba ere arrakastatsua izan bertan 75 partaide inguru izan zirelarik.

Aitziber Murua

Egun guztirako egitaraua

Goizeko 10etan irekiera ofiziala. 10:00etatik 14:30etara bitartean jatorrizko euskal animalia espeziez osaturiko erakusketa zabalik izango da.

Gune bakoitzean megafo- niaren bitartez elkartekideek euskal animalia espezie bakoitzari buruzko argibide zuzenak azalduko dizkiete bertara hurbilduko diren ikusleei. Elkarte bakoitzak jatorrizko euskal animalia espezieetatik ekoizturiko produktuak salgai jarriko ditu. Trikitilariak alaituriko giroa izango delarik. Pottoken gainean eta Gipuzkoako asto-zaleen elkarte-ko astoei jarritako otarretan paseatzeko aukera izango da.

11:00etan betizu, terreña eta pirenaiaren aurkezpena egingo da. 11:30etan euskal herriko erleen elkartekideek

Euskal Herriko erlearen aurkezpena egingo dute, Ele elkartekoek latxa ardiarena eta Gipuzkoako asto-zaleen elkartekideek Enkarterrietako astoarena.

12:00etan pottoken aurkezpena, lehiaketa morfologikoa eta sari banaketa egingo dira.

12:30etatik aurrera goizean zehar Euskal Oilo Elkartekoek ekoiztu eta bertan erreko diren euskal oilaskoak dastatu eta oiloarekin prestatu- rik salda hartzeko aukera ere izango da.

14:30etatik aurrera partaidetza bazkaria.

Arratsaldean 17:00etatik aurrera pottoka eta terreña arteko dema 500 kiloko lerarekin zelaiean. 18:00etatik aurrera zaldi lasterketa.



Aitxuri herri-eskola berriro martxan

Irailaren 9an hasiera eman zioten ikasturte berriari.

2 urteko gela

Urtero bezala bi urte betetzen dituzten haurrak ere eskolara etorri dira lehenengo aldiz. Sei laguneko taldea honako hauek osatzen dute: Joseba Azurmendi, Iñaki Galdos, Izaskun Malkorra, Maialen Martin, Oihane Pelaez eta Egoitz Rivas. Hasiera pixkanaka izan da, gurasoek lasaitu eta behar bezala umeak ego-kitu arte.

Aurten, aurrekoek ez bezala, bi urterekin jangela zerbitzua erabili ahal izango dute, baita arratsaldean lo kuxkarako toki aproposa ere.

Gurasoak eskulan tailerretan

Aitxuri Herri-eskolan, ostiral arratsaldetan, eskulan tailerrek antolatzen dira. Hau aurrera eramateko gurasoen laguntzarekin kontaktu izan da urte askotan. Guraso hauei eskulanak eta umeak gustatzen zaizkie; gainera batzuk

ma S. Coop-ri esleitzea erabaki zuen Udal Batzarrak. Turismo bulegoa, lehen botika zaharra zegoen lokalean kokatu da eta abuztuan zehar 180 pertsoneri eman die informazioa.

Elizalde inguruko berrurbanizazioa

Elizalde Kaleko ingurua ere berrurbanizatzeko proiektua eta baldintzen plegua onartu zuen irailaren 8ko Udal Batzarrak. Ondorioz, 140.299 euroko aurrekontua duen lana deialdi publikora atera du, interesdunek beren eskaintzak aurkez ditzaten.

Zabor bilketan hobekuntzak

Irailaren 22an zabor bilketako zerbitzu berria jarri zen martxan. Orain arte bezala hiru zabor bilketa egin ordez, lau egin dira Zegaman (astelehen, asteazken, ostiral eta larunbata). Bestalde, edukiontzia ere berriak jarri dira eta eta Sasetak jakinarazi du edukiontzitik kanpo dagoen zaborrik ez duela jasoko.

Turismo bulegoaren zerbitzua

Zegamako Udalak bultzaturik, eta dagoen lehiaketa publikoa egin ondoren turismo bulegoaren zerbitzua Linue Zega-

Hainbat ikastaro hastear

Pintura tailerra

Maria Luisa Gorrotxategi herritar margolaria iaz hasi zen Pintura Tailerra zuzentzen. Bertan dozena bat ikasle parte hartu zuten. Aurten ere, pintatzeko afizio duenak edo ikasi nahi duenak aukera izango du urriaren 13tik aurrera. Izenematea Udaletxean egin behar da urriaren 13 bitartean eta klaseak Zineko Gelan emango dira 14:30etik 17:00etara, astelehenero.

Eskulanen tailerra

Iñaxi Urreagak zuzentzen du tailer hau azken hamarkada honetan. Haria eta pintura lan desberdinak egiten dituzte eta tailer hau urriaren 16an hasiko da arratsaldeko 2,30etatik aurrera. Izenematea Udaletxean egin behar da egun hori bitartean eta urriaren 16an osatuko dira taldeak.

Yoga ikastaroa

Yoga ikastaroa urriaren 6an hasiko da Zineko lokalean. Ordu-egia 20:45etik 22:15era izango da eta ikastorduan astelehen eta asteazkenetan emango dira. Izenematea urriaren 6an egin behar da Zineko lokalean bertan, 20:45ean.

Jubilatu eta Pentsiodunentzat soinketa

Urriaren 7an hasiko da 10:30etatik 11:30etara, frontoiko lokalean. Matrikula 12 eurokoa izango da Zegaman erroldatuentzat, 42 euroko ez erroldatuentzat eta 21 euroko pentsiodunentzat. Soinketa egunak astearte eta ostegunetan izango dira.

eskolako ikasleen guraso dira, baina beste batzuk ez. Ikasturte honetan guraso berriak apuntatu dira: Kati Zerberio, Juani Arzelus, Ainhoa Sukia, Ramoni Apaolaza eta M^a Karmen Laskurain. Hauekin batera arituko dira urteetan ibili direnak: M^a Isabel Azurmendi, Arantxa Berasategi, Pili Ezeiza, M^a Luisa Marin, M^a Jesus Telleria eta Arantxa Ormazabal. Aurten tailerrek emateari utziko diote urte asko eta askotan aritu

diren Iñaxi Urreagak, Axun Etxegiak eta M^a Jesus Mujikak. Ostiralero-ostiralero, hutsik egin gabe, izan dira debaldeko lanean, eta ilusioz beterik.

Igeriketa

Lehen Hezkuntzako 1., 2., 3. eta 4. mailakoak goizero Majori Kiroldegira joaten dira. Igeriketa Ikastaro hau urriaren 8an amaituko da.


Edurne Albizu

Kultur etxeko parkearen eraberritzea

Irailaren 8ko Udal Batzarrak, Kultur Etxearen aurreko parkeko berrurbanizazio lanen esleipena Construcciones Pedro Iparragirre S.L.ri 259.294,10 eurotan ematea erabaki zuen.

Hitzaldia urriaren 16an

'Menpekotasuna duen pertsona nola zaindu', gaiarekin hitzaldia izango da urriaren 16an Kultur Etxean, Udaleko Gizarte Zerbitzuen eskariz Kutxak finantzatutako hitzaldia da.



Arriarandik ekarriko da ura

Arriarango urtegitik hornituko da edateko urez laister herria, azken urteotan Zeraingo minetatik zetorren uraren arazoak gaindiezinak direla ikusita. Gehiegizko karea kentzeko ahaleginak eta bi egin dira bai udalaren partetik, bai ur banaketaren eskumena duen Ur Zerbitzuak enpresaren partetik, baina buruhauste latzak eragin ditu elektrotresna eta hodietan.

Udaleko Iñaki Etxezarreta zinegotzia arduratu da gai honekin orain lau urtetik, eta berak azaldu duenez *"jarri diren deskarifikazio sistemak ez dute etekinik eman. Azken neurria ura kimikoki tratatzea zen, eta hori nahi ez zenez azpiegitura mailan lan handiagoko erabaki bat hartu behar izan da"*. Ormaiztegitik gora hodia pasatzea, hain zuzen.

Tolosako Etxaide eraikun-

tza enpresak jada amaitzearen ditu hoditeria berria sartzearen obrak. Bi instalazio bereizi egin dira, bata altakoa, ura depositura ekartzeko, eta bajakoa bestea, banaketarako. Lehenengoan, Ormaiztegitik zubipean presio-bomba jarri da, 200 metroko altuera diferentzia gainditzeko 30 kg-ko bultzada emango duena. Hasieran galtzairuzko hodiak ditu, gero poliuretanozkoak. Ura ekartzeko kostuak osorik Ur Zerbitzuak-en gain doaz.

Egin behar izan den luebakia aprobetxatuz, bestalde, banaketarako hodi berria sartu du Udalak, Baltsalekutik Odolkiaga baserriraino, baserri bakoitzari harpunta eginenez eta etorkizunean Alegi aldera luzatzeko aurreikuspenarekin. Datorren astean Ostatu aurreraino pasako da hodia, uraren sare osoa berritua geratuz

Labur-labur

- Foru Aldundiaren **'Gipuzkoa bizikletan'** gidaren barnean agertzen da **Gabiria**, Zumarraga-Ormaiztegi ibilbidearen baitan. Proposatutako diren hamar ibilaldietako bat da Kamiño Zarretik igarotzen den hau.
- Frantzia preso zegoen **Landetako Ander Geresta espainiaratu egin dute**. Egozten dizkioten delituak epaitu ondoren atzera Fresnesko espetxera itzuliko dute.
- **Gripearen aurkako txertoa** hartu ahal izango da urriaren amaierara bitartean medikuaren kontsultan, asteazkenetan 12:00etatik 13:00etara.
- Egun berean **bi herritar hil ziren**, irailaren 21ean; Aunditegiko Manoli Deba (86 urte) eta Zuazola Garako Leona Erauskin (92 urte).

Vasco Navarro rallya bihar

RAC-ek antolatzen duen Hego Euskal Herriko auto lasterketa bihar larunbata, urriak 4, herriko errepideetan lehiatuko da. Espainiako txapelketarako puntuagarria izango da, eta Nafarroa nahiz Gipuzkoan zehar 603 kilometroko ibilbidea egin behar izango dute 90 autok, horietatik 150 erlojupean. Hamar tarte kronometratutako bat Gabiriako da.

Lapatza-errotak sakonetik abiatuko dira autoak Lierni aldeara, Mutiloara jaitsi eta eskubirantz hartuta minetara igotzeko. Bekoetxeko gurutzera iristean Errotaetxera joko dute, handik Kamiño Zarrean barrena Motxorroraino iritsiz. Aztiriko mendatea igaro, Zerain zeharkatu eta Seguran amaituko da 27,63 km-ko ibilbidea.

Bi aldiz igaroko dira partaideak bide hauetatik, aurreneko aldiz goizeko 9:14ean hasita, bigarren eguerdiko 12:20an. Goizeko zazpiak eta erditan itxiko dute errepide hauetarako pasoa, arratsaldeko ordu biak ingurura arte.

Osinalde bola txapelketa

Bihar, urriak 4, izango da Osinalde txapelketaren hamargarren edizioa udal bolatokian. Izenematea arratsaldeko 4:30etatik 6etara egongo da zabalik. Bola egutegiko zita garrantzitsu den heinean Gipuzkoa osoko bolariak izango dira lehian. Sailkapeneko bost aurrenekoek gain, herrikoentzat eta gazteentzat ere sari oparoak ipini dituzte antolatzaileek.

Aimar Maiz

ZUGAZTIBI
AHOLKULARITZA

zugaztibi@telefonica.net

Tel.: 943 16 23 86 - 943 16 15 58

Faxa: 943 16 15 58

Domingo Unanue plaza, 2 behea ORDIZIA

9:30etik 19:00etara
EGUERDIZ IREKITA

txekin

- Laborala
- Fiskala
- Kontablea
- Juridikoa
- Aseguruak
- Inmueble agentzia

LEIAR
KRISTALDEGIA



ERAKUSKETA:

Ezkiaga Pasealekua z/g ☎ 943 88 88 24

BILTEGIA:

Salbatore Industrialdea ☎ 943 88 60 70

BEASAIN

Gobernuz Kanpoko Erakundeei laguntzak

Udalak 100.095,15 euroko dirulaguntzaz lagunduko ditu Gobernuz kanpoko Erakunde batzuk. Urtero ematen du dirulaguntza proiektu desberdinei. Aurten 23 eskaera aurkeztu dira eta hauetatik 9 proiektu eta kooperanteei zuzenduriko lau beka lagunduko ditu diruz.

Aurrekontuen %1eko laguntza ematen du Udalak eta aurten 100.05,15 eurokoa izango da. Hauetatik 70.066 euro Gobernuz kanpoko erakundeek aurkeztutako 9 proiektu horiei zuzenduak izango dira eta beste 30.029 euro, garapen bidean dauden herrialdeetan lan ezberdinak egiteko gazte batzuei emango zaizkien bekei zuzenduak izango dira.

Laguntza jaso duten Gobernuz kanpoko Erakundeak hauek dira:

Misiones Diocesanas. Jose Martinez beasaindar misiolariak Angolako Precol auzoa alfabetizatzeko proiektua aurkeztu du. 9.000 euroko dirulaguntza jasoko du.

Mugen gainetik. Arreta osasun integralean eta emakumeen antolaketa proiektuarentzat 12.383,04 euroko dirulaguntza.

Taupadak. Bolivian gauzatuko den proiektu batentzat 9.000 euroko dirulaguntza.

Haurralde Fundazioa. Camerunen gauzatuko den proiektuarentzat 12.361 euroko dirulaguntza.

Medicus Mundi. Etiopian, lehen mailako osasun arretako sarea indartzeko proiektuan parte hartuko dute.

3.977,91 euroko dirulaguntza jasoko dute.

Koku-yo. Ekuadorren, emakumeak laguntzeko proiektua. 5.839 euroko dirulaguntza.

Psicólogos sin fronteras. Santiago de Chileko drogopemikotasuna duten adin txikikoei laguntzeko proiektua. 5.839 euroko dirulaguntza jasoko dute.

Elan Euskadi. Nikaraguako El Sacramento komunitatean etxeak eraikitzeko proiektuari 5.839,58 euro eman diote.

Honek. Nikaraguako haurren zentru batean lan egiteko proiektuari 5.839,58 euro eman diote.



Garapen bidean dauden herrialdeetan lana egiteko Beasaingo gazteei beka ere ematen dizkio Udalak. Sei eskaera aurkeztu ziren eta lau onartu ditu udalak. Itziar Aierbe Ekuadorreko Orellanara joango da, Miren Zufiurre El Salvadorrera eta Itziar Mateos eta Eider Lopezgi Boliviara. Argazkin azkeneko biak.

Nekane Altuna

Euskara ikasi edo hobetzeko dirulaguntzak

Beasaingo Udalak Euskara Biziberritzeko Plana martxan du eta euskararen erabilera sustatzeko ahaleginean ari da. Bide horretan eragiteko, ikasturte hasiera honetan, Beasaingo Udalak, euskara ikasi, hobetu edota erabiltzera animatu nahi zaitu. Eta bide batez, horretarako dauden aukeren berri eman nahi dizu:

Euskara ikasi edo hobetu nahi duen beasaindarrak euskaltegietan aurkituko du ikastaro-eskaintza zabala. Informazioa eta matrikula: euskaltegietan edo 943 028 063 telefonon.

Mintza-laguna: kalean modu naturalean hitz egiteko erraztasunak eman nahi zaizkio euskara ikasten ari denari mintza-lagun lanak egingo dituen euskaldun zahar baten bidez. Informazioa eta matrikula euskaltegietan edo 943 028 100 telefonora deituta.

Gurasoentzako astean 4 orduko ikastaro bereziak; euskararen transmisioak etxetik hasi behar duelako. Informazioa eta matrikula ikastetxeetan.

Merkatarientzako ikastaroak; merkatariek herritarrei zerbitzua ahalik eta hobekien eskaintzearen alde. Informazioa eta matrikula 943 028 100 telefonora deituta.

Argazki lehiaketa

Peña Belokik eta Argizpi Argazkizale Elkarteak Beasaingo udalaren babesarekin antolatu dute 4. Argazki lehiaketa Peña Beloki Saria. Argazki eta txirrindularitza zaletu guztiei zuzendua dago. Gaia txirrindularitza izango da, zuri-beltzean eta koloreetan hiru argazki aurkeztu beharko dira egile bakoitzeko. Teknika eta aurkezteko moduez askatasun osoa dago. Gehienez ere 30 X 40 cmko kartoiez sendotuta. EEZ da argazki digitalik onartuko. Irabazleak 180 euro eramango ditu. 2.nak 150 euro eta 3. sailkatzen denak 100 euro. Sari berezia emango zaio Joseba eta Gorka Beloki txirrindulariei ateratako argazki onenari. Lanak, Argizpi Argazkizale Elkartera edo Basakana tabernara eraman behar dira. Lanak jasotzeko azken eguna urriaren 26a izango da.

Asmuberen ikastaroak

Urrian hainbat ikastaro desberdinei emango diote hasiera. Izena emateko, Asmubek Ubi Etxean duen bulegotik pasatu behar da, arratsaldeko 5etatik 7etara.

Yoga. Urriaren 6an hasita. 15:30etik 17:00etara astelehen eta ostiraletan. Astearteetan, 9:00etatik 10:30era eta 10:30etik 12:00etara, eta ostegunetan. **Eskulanak.** Urriaren 6an hasita, 18:00etatik 20:00etara. Hari lanak. Urriaren 7an hasita, 17:30etik 19:30era, astearteetan. **Patchwork.** Urriaren 7an hasita, 17:30etik 19:30era, astearteetan. **Masajea.** Urriaren 8an hasita, 16:00etatik 18:00etara (20 ordu). **Oleoeko pintura.** Urriaren 9an hasita, 15:00etatik 18:00etara. **Musikoterapia.** Urriaren 15etik aurrera, 18:30etik 21:00etara, asteazkenetan (24 ordu). **Lan taldeen formazioa eta gestioa.** Urriaren 9an hasita, 16:00etatik 18:00etara, ostegunetan (15 ordu). **Mekanografia, ordenadorez.** Urriaren 13an hasita, 9:15etik 10:15era astelehen eta asteazkenetan (20 ordu).



Kurtso berri bati hasiera

Goritz, Asier, Ander, Maider, Olatz, Iker, Eneko, Xabier, Irantzu, Ane, Ainara eta Ainhitze ere, batzuk Ordizian eta beste batzuk Beasainen, euren ikastetxeetako egunero-kotasunera ohitzen egongo dira jada, batu dituen udari agur esanda. Hain zuzen ere, aurtengo udan elkarrekin gozatzeko aukera izan dute ekaina eta uztaillean zehar. Adinak eta herriaren txikitasunak ezartzen dituen mugak apurtu eta bertako haurren harremanak sendotzeko asmoarekin, Aramako Udalak aisialdi programa bat aurrera eraman du bigarren urtez, herriko bi gazteren laguntzare-

kin. Haur hauek elkarrekin, ikasi, jolastu eta gozatzeko aukera izan dute euren herrian, horretarako kanpora atera beharrik gabe. Askok eta asko izan dira 20 egunetan zehar egin dituzten ekintzak: dituzten artista doteak erakusten zizkiguten eskulanetatik hasi eta herriko txoko esanguratsuenak bisitatzeraino (Ibaresko errota, kasu).

Esperientzia oso positiboa izan dela ikusirik, ziurtasun osoz esan liteke jarraipen bat ere izango duela, nahiz eta oraindik "lo asko egin" beharko dituzten egoera berera itzultzeko. Baina zailtasunak zailtasun, espero dezagun ez



dugula itxaron beharrik izango guztiak batera Araman bertan ikusteko. Udan erein-

dako haziak urtean zehar fruituak eman dituen seinale.

Ainhua Mujika

ARMAZOIA+
KRISTALA
NAGUSIENTZAT

50€ tik aurrera

eta kristal
progresiboekin

150€ tik aurrera

Esanako balioak beste zerbaitzaz +6 edate +2 zilindro

ARMAZOIA+
KRISTALA*
UMEENTZAT

55€ gatik bakarrik

* Kristal sendo organikoa
Lente zuriendako +6 edate +2 zilindro

MULTIOPTICAS -en

bonardi haizea
ARMAZOIAK

49€ gatik bakarrik

Multi-
Eskaintzak

bonardi ARMAZOIAK

32€ gatik bakarrik

Eskaerak baliozkoak 2003/06/15etik 2003/10/31ra bitarteko.



R.P.S. Nº 164/99 I.L.G.

J.M. Barandiaran Enp. • Tel. 943 88 99 88 • ORDIZIA

Eskulan ugari

VI. Artisaualdian

50 erakustokitik gora izango dira urriaren 10 eta 12a bitartean Majori Kiroldegian. Aurreko bost urteetan ekimenak izandako harrera ona ikusita, bere horretan jarraitzea erabaki dute Gipuzkoako artisauen Elkarteak eta Udalak. Batez ere Gipuzkoan bertan eta baita inguruko herrietan ere egiten diren eskulanak bultzatzea du helburu "artisaualdian" edizio berri honek, artisauak beraien artean komunean dituzten arazoez hitz egin eta irtenbideak bilatzearekin batera.

Artisauak egindako lanak

ikusita eta erosteaz gain hitzaldiak ere izango dira Barrena Kultur Etxean (egitarau zehatza 3. orrialdean). Trikitilariak, talogileak, musika eta dantzak ere ez dira faltako. Sarrera 1,50 eurokoa izango da eta Majorin bertan hainbat eskaintza berezi izango dira. Zozketa bereziak ere izango dira, denak ere egindako erosketaren arabera. Artisaunen arteko lehiaketak ere izango dira. Artisaunen artean ordiziar bat ere izango da, Koki Hernandez keramikagilea, hain zuzen.

Aitor Calvillo

Matrikula zabalik

Goierriko Bertso Eskolak irekita dauka 03-04 ikasturterako matrikulazioa. Deialdia Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloko zuzendua dago bereziki, baina bertsolaritzan interesa duen edonorentzat ere atea zabalik izango dira. Eskolak, orain artean bezala, astelehenetan emango dira Barrena Kultur Etxeko gelan, 17:30etik 19:00ra bitartean. Bat-bateko taldea ere izango da ostiral iluntzetan Argi Berri Elkartearen.

Eta bertsolaritzarekin jarraituz aipatu Gipuzkoako Txapelketa martxan dela jada. Bertan Alaitz Sarasola ordiziarrek parte hartuko du. Lehen kanporaketa saioa Zaldibian izango du ostiral honetan bertan (urriak 3). Urriaren 26an finalaurreneko bat jokatu da Ordizian.

KzGunea

Urria eta azaroko ikastaroak hastekoak dira. Interneten nola sartu ez dakitenei zuzendua egongo da 20 orduko ikastaro bat, urriaren 7tik 17ra bitartean goizeko 11etatik ordubatera. Orain ezin duenak aurreago ere izango du aukera, beste hiru saio emango baitira. "Nagusiweb" ikastaroa 10 ordukoa izango da (adinekoei zuzendua) 13tik 17ra bitartean. Izena emateko deitu 943884378 zenbakira edota Domingo Unanuen dagoen egoitzatik pasa. Gogoratu partehartzea mugatua izango dela.



Adin guztietako korrikalariak izan ziren Ordizian.

810 korrikalari

Erantzuna sekulakoa izan zen III. Josetxo Imaz memorialean. 500 eskolamezko aurrena eta 810 heldu ondoren izan zen irteeran elkartu zen korrikalari kopurua. Esan beharrik ez orain arteko parte-hartze marka guztiak gainditu zirela. Eta dena Ordizia, Lazkao eta Beasain zeharkatuz 10 kilometroko ibilbidea egiteko. Josetxo Imaz bera omendu asmoz sortutako lasterketa da berau, baina oraingo honetan Jose Manuel 'Txato' Caballero eta Irantzu Eguiguren omendu zituzten, zoritxarreko istripu baten ondorioz hil baitira aurrekoan bertan.

Lasterketari dagokionez Estibaliz Urrutia bizkaitarra gailendu zen emakumezkoen artean, Rakel Llamas eta Itziar Urdangarinen aurretik. Estibalizek iaz ere garaipena eskuratu zuen. Gizonezkoetan Roberto Ruiz arabarra nagusitu zen, bigarren Ritxard Fernandez oñatiarra izan zen eta hirugarrena Jon Arozena. Jose Antonio Blanco Ordiziarra bosgarren tokian sartu zen.

Errugbikoak bikain

Maila berriari segituan hartu dio neurria errugby taldeak. Hainbeste kostata bigarren "b" mailarako igoera eskuratu zuen iaz eta bi neurketa jokatu diren honetan garaipen bat eta berdinketa lortu ditu. Trebujanon Santandergo taldea hartu zuen lehen jardunaldian (aurten igotako taldea) eta 27-11 nagusitu ziren. Asteburuan Sevilla aldera joan eta han Ines Rosales taldearekin 29na berdindu zuten. Gogoratu hauek izan zirela orain bi urte igoerako bidean itxi zieten taldea.

Hasierako emaitzak ikusita itxaropentsu aritzeko moduan dira hemendik aurrera jokalaria. Gainera, lehendik zituzten bi argentinarez gain beste bi ere iritsi berri dira. Juan Pablo Espetxe da bata eta Jose Lentini bestea. Marcos Amaya eta Pablo Cordobari gehitu zaizkie hauek.

Angel Vazquez 'Ninin' Aragoi itzuliko garaile

23 urteko lazkaotar gazte honek lehen garaipena lortu zuen pasa zen astean afizionatuetakotxirindumailan. Berak Caja Rural taldean daramazki lau urte nahiz eta lehen urtea Arrasateko Born taldean aritu afizionatu mailan. Aragoiko itzulia izan du lehen saria.

- Lasterketaz aparte zenbatgarren itzulia zenuen hau?

- Aurten lautan ateratzeko aukera izan dut. Bizkaiko Bira, Leongoa, Aragoikoa eta Cirquito Montañes izenekoa.

- Azken hau ezagunena?

- Bai, batez ere lasterketa hauetan profesionalekin aritzen delako.

- Azken garaipen hau sorpresa handia izan al da?

- Aurreko itzulietan Bizkai eta Leonen, 6 eta 8. postuak lortu nituen eta Montañese-koan ere bi lasterketatan 6 eta 8. geratu nintzen, beraz sorpresa...beti ere zaila ikusten da baina ez lortu ezina.

- Nola joan zen astea?

- Aste guztiko etapa denak ez ziren oso gogorrak baina hango haize zakartsuak asko galazten zuen, hark ematen zion gogortasuna lasterketari. Lehena erlojuaren kontrako etapa izan genuen. Ordurako lehenengotik lau segundora jarri nintzen. Azkeneko etapa arte ez zen inongo ezustekorik egon.

- Eta azken etapa?

- Goizean urduritasuna eta lasterketa barruan azken portuan hogeitabat lagun geratu



ginen tropeleko mozketak bati esker. Denbora aurrera zihoala eta Baletinares skyko pistetan gora gindoazela jendea geratzen zihoan, lehen sailkatua eta biok geratu arte eta biok iritsi ginen helmugara.

- Helmuga ere interesgarria.

- Bai, gure arteko denborak ikustean eta ziurtatzean itzulia nirea izango zela berak etapa irabazteko geratu ginen. Jarraian eta kilometro gutxiren faltan zuzendariak deitu zidan esanez aurkaria profesioaletara igotzeko zegoela eta niretzat oso garrantzitsua izango zela irabaztea lasterketa hori. Beraz, planak aldatu eta esprinaren bila joan nintzen. Konturatzerako helmugan geunden eta sartzean besoak igo nituen garaipena lortu nuelakoan baina azken argazkia ikustean ohartu nintzen bera aurreratu egin zitzaidala.

- Nola bizi izaten da horrelako eguna?

- Hasiera batean lasai hartu nuen, ez nuen sinisten baina eguna aurrera zihoala benetako poza.

Aparteko astebukaera

Izuagarritzko aste bukaera bizi izan zuen herriak zituen ekitaldi guztiak kontutan harturik. Ostiralean sagardo dastaketak eman zion hasera jende asko bilduz eta kiroldegian futbol aretoko partidua jokatzen zen bitartean giro paregabea antzematen zen. Partiduak bana bukatu zuen eta penalti jaurtiketetan erabaki zen Tolosarentzat izan zelarik garaipena. Larunbat arratsaldean berriz, buruhandiak izan genituen herrian zehar txarangaren laguntzarekin hauek jarraian herria girotzen saiatu zirelarik. Gauean berriz 800 pertsona bildu zituen kontzertua izan zen Benito Lertxundiren eskutik. Giroa ere paregabea. Igandea berriz izan zen egunik beteena. Goizen-goizetik Ordiziko Josetxo Imaz lasterketa ikusteko aukera egon zen herriatik pasa baitzen. Herriar askok hartu zuen parte. Jarraian pilota partidua jokatzen ziren denak ere txapela lortzeko gogoarekin. Lehen partidua Ioritz G. Irastorza eta Luken Auzmendik, Mikel Insausti eta Iker Gandariasen aurka jokatu zuten azken hauek irabazi zutelarik. Jarraian eta federatu gabeen, Aitor Tello eta Jon Arrondok ezin izan zuten irabazi Iñaki Ibarguren eta Javi Gelbenzuren aurka. Giroa apartekoa zen eta jendetza handia Dantzari txiki eguna ere ospatzen hari baitzen. Ehundaka ahur bildu ziren herri ezberdinetatik beraien dantzak eskeiniz eta dena hain ondo zihoanean euria izan genuen protagonista. Azken pilota partidua jokatzeke zegoen federatuena hain zuzen ere eta dena jaso eta kiroldegira eraman behar izan ziren traste guztiak finala joka zezaten. Hemen Asier Katalina eta Pako Garmendia, Jon Ander Esnaola eta Unai Amundarainen arteko partida izan azken hauek lortu zutelarik garaipena. Arratsalderako zerua ateri zegoen eta gazteen partidua plazan jokatu ziren. Bitartean dantzari txiki egunari ere agur esan zien hurrengo urterarte. Dendetza handia bildu zuen ekitaldi bakoitzak eta antolatzaileen eskutik esker ona ematea geratzen da emandako erantzunagatik.

Anartz Etxeberria Chicagon

Anartz Etxeberria Chicagon harituko da lastertzen hurrengo aste bukaeran. Haren emaitz eta kontakizunak hurrengo alean irtingo dira.

Aitor Tello

- Denboraldiko azken lasterketa da al zen?

- Bai, orain azaro bukaera arte atsedena eta garaipen honetaz disfrutatzeko aukera izango dut.

- Orain atsedena diozu, eta urte guztian zehar?

- Lanagatik edo ikasketengatik badiozu, Ifarra lantegian aritzen naiz arratsaldetan. Enpresariales ardatzean diplomaturia naiz eta horri esker nago lanean. Nahiz eta ez egon 8 ordura...

- Denbora asko kentzen al du kirol honek?

- Garbi dago kirol oso gogorra dela eta ondo ibili nahi baduzu denbora eta bizia berari eskaini behar diozula. Lan finko bat edukitzeak ez dizu onurarik egiten itzulietara joan behar baduzu ordutegi oso-oso malgua behar baita.

- Aurrera begira zein helburu dituzu?

- Hurrengo denboraldia ondo prestatu eta ahal den ondoena ibili. Nola ez, beti ere profesioaletara igotzeko ilusioarekin, baina momentuz hori beste atal baterako utziko dugu hark duen konplexutasunagatik.

19 herritar futbol taldeetan

Udal ikastaroak

Euskara. Pasa den astean egindako deialdira jende gutxi azaldu zen. Euskaraz ikasteko interesaturik dagoenak udaletxean dei dezala.

Soinketa. Dagoeneko hiru talde ari dira: goizetakoa, arratsaldetakoa eta jubilatuen. Ikasturte osokoa. Irakaslea: Jokin Elkoro.

Aerobic. Taldeak eta ordutegia zehazteko atzo zen bilera.

Esulanak. Urriaren 13an hasiko da. Astelehenetan 14:30etik 17:00etara Kultur etxean. Irakaslea: Iñaki Urreaga.

Egur tailaketa. Urriaren 7an hasiko da. Astearteetan 18.30etik 21:00etara postetxe atzean. Irakaslea: Jabier Arrieta.

Beste ikastaroren baterako interesa duenak dei dezala udaletxean (943801006).

Labur-labur

● **Udaletxe aurreko lorategiaren** berrantolaketa pasa den astean hasi zuten Ezkio-ko 'Ikerlora' enpresakoek. Besteak beste, ureztapen automatikoa jarriko da.

● **Gidatutako garbiketa ibilgailua.** Herriko auzo eta kaleak garbitzeko 42.000 eu-

Hasi berria den 03/04 denboraldian 19 jokalaririk ari ziren 19 kategoririk ezberdinetan:

Errejonalean: Xanet Garmendia, Imanol Intxausti, Ibai Telleria, Uritz Gonzalez, Enetz Olano eta Ander Trujillo.

Jubenilean: Urtzi Intxausti, Anaitz Goia, Iban Ferreira, Ergoitz Gonzalez eta Gorka Gerriko.

Kadeteen: Endika Mantecon, Javi Rodriguez, Aitor Arosteigi, Markel Fernandez eta Borja Gereñu.

Infantilean: Julen Sarasola, Jonan Ferreira eta Joseba Suarez.

Bazkide berrien beharra

16.000 euro inguruko aurrekontua dute. Federazioko fitxak, arbitroak, bidaiak eta materiala dira gastu handie-



Jubenilen taldea pasa den zapatuko partidua aurretik.

nak. 100 bazkide inguru dituzte taldeak. Bizirauteko, kopuru horren igoera ezinbestekoa da. Herriari eta futbolari aporteratuz, bazkide berri egiteko aukera futboleko tabernan dago, partidua garaian.

Alebinen taldea

Urriaren 2. astetik aurrera alebinen ligatxoan parte hartzeko asmoa dago, taldea osatuz.

Asteburuko emaitzak

Errejonaleak: Intxurre 3-2 Segura. **Jubenilak:** Segura 1-3 Aldapetarrak. **Kadeteak:** Aizkorri 0-8 Aretxabaleta. **Infantilak:** Zarautz 4-0 Aizkorri.

Asteburuan etxean

Errejonaleak: Segura - Elgoibar, zapatuan, 17:00etan. **Infantilak:** Aizkorri - Touring, zapatuan, 11:00etan.

ro inguruko garbiketa ibilgailua erosteko asmoa du udaletxak. Hilabeteen proba modura erabiliko da.

● **KZ gunea.** Internet ikastaro mota ezberdinak urriaren 31 arte. Informazio guztia, osasun etxeko geletan (943801866).

● **Xabier Makazaga** preso herritarraren aurkako epaiketara aste honetan hasi da.

● **II. Hegazti azokako** zozketa ibiltariko zenbaki sari-tua: 1628.

● **Korua egunpasa.** Urriaren 4an, 8:30ean plazatik ir-tenda Errioxara. Briñasen gosaria. Oiongo Faustino ardandegia ikusi eta bazkaldu. Arratsalde bi aukera: Harora bixita edota Villabuenako Arabarte ardandegira.

● **Jubilatuentzat hitzaldiak.** Urriaren 14, 16, 22 eta 23an, osasunari buruzkoak. Kultur etxean, 19:00etan. Urriaren 11n, Zestoan, herrialdeko ibilaldi neurtua, 4

gizonezkoak eta 4 emakumezkoak parte hartuko dute.

● **Euskal girotze barnetegia.** Irailaren 22an hasita Sanjoan arte, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko 8tik 11 urte bitarteko 1.000 inguru haurrek euskara praktikatzeko aukera izango dute aterpetxean. Astero, 30 lagun inguruko talde ezberdinak etorri-ko dira.

● **Nafarroa Oinez.** Elorri K.E.-ak autobusa antolatuko du urriaren 19an, Irunberrira. Izen ematea Elorripen.

Joseba Telleria



Eskolako txikienak

2001ean jaiotakoak dira lehen aldiz eskolaratu direnak. Ezkerretik eskuinera: Julen Txabarria Ormazabal, Iker Francisco Fernandez, Sahatsa Izagirre Santoyo, Ander Svensson Virto, Ioritz Ibañez Insausti eta Nora Insausti Altuna. Argazkian 6 ageri badira ere, 9 dira matrikulatuak. Ainhoa Rodriguez, Estitxu Izagirre eta Elur Telleria falta dira.

Liburutegi berria zabalik

Urriaren 1ean inauguratu zen Udal liburutegi berria. Orain arte bezala, astelehenetik ostegunera, 17:00etatik 19:00etara erabili ahal izango da. Horretarako, ordea, argazki eta guzti liburutegiko bazkide txartela atera beharko da (dohan), barne araudi berria ere egin delarik. Urte amaierarako hiru ordenagailu eta internet zerbitzua ere herritarren esku izango dira helbide elektronikoa propioa ere izango duelarik. Zenbait liburuekin osatuko da aurreko bilduma, besteak beste, hiztegiekin eta bidaia liburuekin. Hiruhilero argitalpen berriak jasoko dira eta liburutegien arteko fondoan erabiltzeko aukera.

Jubilatuen eguna urriaren 12an

Urriko bigarren igandean ospatuko dute herriko erretiratuek beraien eguna. Eguerdiko 12etan meza izango da eta ondoren, ordu bietan, bazkaria egingo dute Olaberriako Arrieta jatetxean. Bazkalondoa, urteroko moduan bertan dauden artean opariak zozketatuko dituzte.

Bazkarira joan nahi dutenek urriaren 5a (igandea) baino lehen eman beharko dute

izena Jubilatuen Elkartean horretarako izendatutako egun eta orduetan. Azkeneko aukera urriko lehenengo asteburuan izango da. Larunbatean (urriak 4) arratsaldeko 6etatik aurrera eta igandean (urriak 5) meza ondoren.

Urteroko jaiaz gain, Jubilatuek urtean zehar zeregin gehiago ere izaten dute. Udalak eta Jubilatuen Elkartek prest dute udazkenean hasi

Zerdeñarekin hartuemana

Idiazabal, Zerdeñako (Italia) Thiessi herriarekin hartu emant hasi da. Berriki Arantzazun egindako Munduko artzainen foroan eman ziren lehendabiziko urratsak. Bi herrietako agintariek etorkizunerako hartu eman hori nola sendotu aztertu zuten. Thiessiko ordezkariak Idiazabal bisitatzen izan ziren.

Zirika Irratia

Urriaren 11n, larunbata, hasiko dira Zirika Irratiko saioak. Ohiko orduan, eguerdiko ordu batean hasita herriko albisteen berri emango dute. Zirika Irratia FM-ko 99.1 entzuten da.

eta martxora bitarteko egitaraua. Urriaren 7an, asteartean hasiko dira ekitaldiak. Egun horretan Kutxak eskaintako 'Gipuzkoako leinua: jatorrizko oinetxearen eta familiaren artean' hitzaldia entzuteko aukera izango da, 19.30etan Jubilatuen Elkartean. Urria-

ren 28tik aurrera, hamabostean behin (asteartetan) Bingoan jokatzeko aukera izango da iluntzeko 8etan. Hortik aurrera, hitzaldiak, Santa Luzia eguneko txokolate jana edota Sanblasetarako ekimenak antolatzen ari dira.

Xabier Urteaga



Agerre berrituta

Neguan hasi ziren Agerreko ermita berritzen eta dagoeneko itxura berrituta dago. Ermitaren hormak eta teilatuak berritu dituzte, baita teilatua eusten duen egurrezko egitura ere. Lanek 35 milioiko aurrekontua zuten, horietatik 21 Gipuzkoako Foru Aldundiak ordaindu ditu.

VOLVO



ANZIZAR, S.A.

Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea


Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 943 88 17 00 Faxe.: 943 88 48 11
www.anzizar.com
BEASAIN



MUJKA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19
☎ 943 88 11 94
ORDIZIA

iBAi ONDO



ARozTEGIA

Logela, egongela eta sukaldeko altzari
nahiz osagarrietan aukera paregabea

Altzariak neurrira
Mota guztietako aroztegi lanak
PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa
☎ 943 16 40 40 faxe: 943 16 47 47
Poltsikoko telefona: 639 631 640
Antzizar-Katea, 5 BEASAIN

Kultur etxeko dinamika

Urte honen hasierarekin batera Kultur etxean martxan jarri zen dinamika, aurtengo ikasturtean ere jarraipena izango du. Eskaintza herritar guztien eskura dago eta hauek dira zerbitzu desberdinak eta ordutegiak.

Liburutegia

Alde batetik liburutegi zerbitzua izango da, bertan dagoen libururen bat etxera irakurtzera eramateko nahiz entziklopedia edota kontsulta liburutegian eskolumeen zalantzak argitzeko.

Liburutegia asteartetik ostirala bitartean irekiko da arratsaldeko 4,30etatik 8etara eta larunbatetan 10,30etatik 1era.

KZ gunea

Horrekin batera KZ gunera joateko aukera izango da tarte horretan. Iaz hainbat ikastaro egin ondoren, bertan gelditu dira hiru ordenagailu,

nahi duten guztiek erabiltzeko nahiz interneten murgiltzeko.

Tresneria desberdinak

Bide batez aipatu, Kultur etxean zine emanaldiak egiteko tresneria desberdinak jarri direla, proiektorea, pantaila eta horretarako aukera ere badagoela.

Haurrentzako ekintzak

Azkenik, esan, haurrekin ikasturtean hasitako ekintza desberdinek jarraipena izango dutela. Asko izan dira egindako ekimenak, jolasak, eskulanak, marrazketak, landaketak, herriko paraje desberdinetara bisitatxoak... Guraso eta haurren topagune bihurtu da Kultur etxea eta iaz bezala asteazken arratsaldean eta larunbatean goizean elkartzen eta ekintza desberdinak antolatzen jarraituko dute. Urriaren 1ean emango zioten hasiera eta astero-aste-



ro egingo dituzte ekintza desberdinak.

Honen adibide bat, udan Murgiarango presara egindako ateraldia da, hor ageri dira

herriko umeak preskatua hartzen. Egia esan aurtengoa ez da gutxiagorako izango.

Iñaki Ugalde

Rallye Rac Vasco Navarro herritik

Urriaren 4an pasako da gure herritik XXXI. 'Rallye Rac Vasco Navarro' delakoa. Bi urte barru Europako Rallye txapelketarako puntuagarri izan nahi duen automobil proba honek, bi abiadura tarte izango ditu Gipuzkoan zehar eta horietako bat gure herritik pasako da. Ormaiztegitik Liernirako bidea hartuko du eta hortik Mina aldera. Hemendik Gabirira joko dute, Korta jatetxetik Motxorrorra eta Aztiri gaina igo ondoren Zearainen bukatuko dute lasterketa. Honek errepidea ixtea eskatzen du eta halaxe egongo da tarte horretan goizeko 7:45etik eguerdiko 14:00etara.

GESTORIA Biok

ASEGUROAK

- ✖ Aholkularitza laborala eta fiskala
- ✖ Jubilazio, bizitza, etxebizitza eta kotxe aseguruak

☎ 943 88 44 00 - 943 88 12 58

Goierri, 12

ORDIZIA



- ✖ Depresioak
- ✖ Harremanetarako arazoak

Ordua eska ezazu konpromezurik gabe

☎ 943 674 619 Nafarroa Etorb. 25 - 1. ez. BEASAIN

Pedro Jose Landagutierrez

PSIKOLOGOA
Kol. Zkia. E - 1687

- ✖ Beldurrak
- ✖ Antsiak
- ✖ Segurtasun eza



RENAULT

LAZKAO GARAJEA

Senpere Industrialdea

☎ 943 882 442

☎ 943 888 901

Faxa: 943 888 901

LAZKAO

PSIKOLOGI KLINIKOA



Helduen,
umeen, bikoteen
eta sexologi
tratamenduak

Jose Ramon Pato Prieto

Psikologian lizentziatua

Elkargokide zenbakia: E-2644

RPS: 420/95

JM Arana, 1 - 2. esk. esk.

AURRE ZITA

☎ 943 887 221

☎ 610 020 041

BEASAIN

Goierritarra

etxean jasotzeko laguntzaile txartela

Txartel hau betetzen dutenei urtean 12 euro kobratuko zaizkie posta gastuak ordaintzeko

Izen-abizenak:

Helbidea:

Herria:

Tfnoa.:

NAN:

Kontu zenbakia (20 digitu):

Bidali txartel hau helbide honetara: **Goierritarra, 124 Posta Kutxa, Ordizia**

Jubilatu eta pentsionisten eguna

Joan den irailaren 29an jubilatuen eguna ospatu zen. Urtero urtero, egun honetan, herriko zaharrenei nolabaiteko omenalditxoak egin ohi zaie. Urteak pasatu ahala, adineko pertsona ezberdinei ematen zaie saria, urtero pertsona bereberiei ez ematearren. Aurtengo honetan, Maria Odriozola eta Nikolas Garmendiari egokitu zaie erramilete eta eskumuturreko erloju bana jasotzea.

Bestalde, urtean zehar karta jokoa liga moduko bat egiten dute, eta irabazleei egun honetan eman zitzaizkien sariak:

- **Musean (4 erregetara):** Je-

sus Iturrioz eta Lorenzo Amenabarro.

- **Musean (8 erregetara):** Kristina Goikoetxea eta Sotero Calleja.

- **Tutean:** Leonita Maiz eta Eusebi Iturrioz.

- **Puntuan:** Kristina Goikoetxea eta Sotero Calleja.

- **Eskoban:** Demetrio Garmendia eta Francisco Goikoetxea.

- **Seiko urrean:** Kristina Goikoetxea eta Sotero Calleja.

- **Txintxonean:** Pilar Lasa.

Hauek ez ziren izan sari bakarrak orde, maiatzean burututako pote igel eta toka txapelketako irabazleei ere

Gipuzkoako bertsolari txapelketa

Aurreko irailaren 26an hasi zen Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa, 71 bertsolarik osatua. Hainbat herritan izango dira kanporaketak. Besteak beste, gure herrian ere izango da saio bat, urriaren 10ean hain zuzen ere. Bertan, honako bertsolari hauek arituko dira euren abilezia erakusten: Iñaki Apalategi, Uxue Fernandez, Gorka Azkarate, Amaia Agirre, Antton Fernandez eta Ekaitz Goikoetxea.

Helduentzako zinema

Atzo, urriak 2, hasi zen helduentzako filme emanaldiaren denboraldi berria, 'Los lunes al sol' filmarekin. Urte osoan zehar, ostegunetan izango dira helduentzako filme emanaldiak arratsaldeko 8:30etan Herri Zineman. Honako hau da hil honetako eskaintza:

- **Urriak 9:** 'Al otro lado de la cama'. Zuzendaria: E. Martinez Lazaro.

- **Urriak 16:** 'La caja 507'. Zuzendaria: Enrique Urbizu.

- **Urriak 23:** 'El crimen del padre amaro'. Zuzendaria: Carlos Carrera.

- **Urriak 30:** 'Quiero ser como Beckham'. Zuzendaria: Gurinder Chadha.

egun honetan eman baitziztaizkien sariak:

- **Igel:** Francisco Esnaola.

- **Toka:** Pepe Garcia.

- **Pote:** Joxe Zunuzunegi.

Zelai Amenabarro

Eskolaz kanpoko ekintzak

Ugaro Herri ikastetxeko Guraso Elkarteak aurtun ere martxan jarri ditu eskolaz kanpoko ekintzak. Bertako ikasleek, judoan, soinketa erritmikoan eta euskal dantzetan aritzeko aukera izango dute.

Judo astearte eta ostegunetan izango da. 3 talde egin dira adinaren arabera: 4 eta 5 urtekoak, 6, 7 eta 8 urtekoak eta 9, 10 eta 11 urte bitartekoak.

Euskal dantzetan ere 3 talde egin dira: lehenengoak astearte eta ostiraletan izango du ordua, arratsaldeko 4,30etatik 5,30etara. 2. taldekoak astelehen eta ostiraletan arituko dira dantzari, eta 3. taldekoak, berriz, asteartero bi orduz jarraian.

Soinketa erritmikoa berriz, astelehen eta ostiraletan izango da.

Eskulan ikastaroa

Udaleko Kultur Batzordeak Eskulan Ikastaro bat antolatu du Kutxa Gizarte Ekintzaren laguntzarekin.

Bi talde osatuko dira, astearteetan biak, bata goizeko 9etatik 11:30etara eta bestea arratsaldeko 2,30etatik 5etara.

Ikastaroaren iraupen osoa 45 orduakoa izango da talde bakoitzarentzako eta urriaren 14an hasiko da Kultur Etxean.

Matrikularen kostua 35 euroakoa izango da eta Udal Bulegoetan izena ematerakoan ordainduak izan behar dute. Izena emateko epea urriaren 8an amaituko da.

Gazte festak abian

Dagoeneko martxan da aurtengo Gazte Festen prestakuntza. Urriaren 17 eta 18an ospatuko dira. Hala eta guztiz ere hurrengo alean egitarau osoaren berri emango zaizue.

Bestalde, gaineratu beharrekoa da, ostiraleko afarirako eta larunbateko bazkarirako sarrerak aldeztu aurretik erosi behar direla. Herriko tabernetan jarriko dira salgai. Sarrerarik ez duenak ezin izango baitu ez afarian eta ez bazkarian parte hartu.

Kultur astea antolatzen

Hil honen azkeneko astean ospatuko da kultur astea, eta Udaleko Kultur Batzordea berau antolatzen ari da herriko zenbait elkarterekin. Antolatutako ekintzen artean Euskal Dantzen inguruko festa bat burutuko da, dantzaren inguruko jantziak, argazkiak eta zenbait materiale erakutsiz. Arrazoi hori dela eta ekintza hau ahalik eta aberatsena izan dadin helburuarekin, herritarrengana jotzen da zuen etxeetan Euskal Dantzen inguruan izan daitekeen materiale guztia udalaren esku jar dezazuen, argazkiak, jantziak, dokumentuak, eta abar.

Materiale hau Udaletxera edo Kultur Etxera ekar dezakezue eta ekintza amaitu ondoren itzulia izango zaizue.

Zabor bilketako egutegi berria

Zabor-bilketako zerbitzu berria martxan jartzeaz dagoela eta, zabor edukiontzia astean hirutan hustu beharrean lautan hustuko dira. Bilketa egutegia honela geratuko da: astelehena, asteartea, osteguna eta larunbata.

Gipuzkoako bertsolari txapelketa hasi da

7 goierritar lehiatzaile

Railaren 26an hasi eta abenduaren 14an amaituko da 2003. urteko Gipuzkoako bertsolari txapelketa. 71 bertsolari arituko dira lehiatzaile. Tartean 7 goierritar. Goierri hiru saio izango ditugu. Zaldibian eta Legorretan lehen faseko bi saio eta Ordizian, final laurdenetakoak. "Txapelketa gaztea, maila handikoa eta irekia" izango dela aurreratu du Gipuzkoako Bertsolari Elkarteak.

25 urteko batez bestekoa izango du 2003. urteko Gipuzkoako bertsolari txapelketa honek. Millan Telleria bertsolariak txapelketaren aurkezpenean esan zuenez, "txapelketa gaztea da oso, bertsolaritza bera ere gaztetzen ari delako". Felix Irazustabarrena Gipuzkoako Bertsolari Elkartearen lehendakariak gaineratu zuenez, "txapelketa erakargarria eta maila handikoa" izango da. Izan ere, Euskal Herriko txapelketako lau finalista arituko dira kantatzen: Jon Maia, Maialen Lujanbio, Jesus Mari Irazu eta Aitor Mendiluze.

Goierritar ugari

71 bertsolari horietatik 7, goierritarrak izango dira: Iñaki Apalategi, Ekaitz Goikoetxea, Joxe Munduate, Alaitz

Sarasola, Aitor Sarriegi, Iban Urdangarin eta Iker Zubeldia. Hurrengo orrialdean dituzue bakoitzaren xehetasunak. "Batzuk beren maila erakusteko aukera izango dute eta besteek, berriz, beren burua ezagutarazteko erakusleiko polita izango dute", esan zuen Millan Telleriak.

Hauetz gain, 15 epailek, 10 gai-jartzailek eta talde antolatzaile zabalak zainduko dute aurtengo txapelketaren motorra. Epaileen artean, 4 ditugu goierritarrak: Jon Agirre, Martin Aramendi, Migel Mari Imaz eta Asier Oiarbide. Gai-jartze lanean, azkenik, beste bi goierritar: Irati Goikoetxea eta Saroi Jauregi.

Goierri 3 saio

19 saiotan barna, Gipuzkoa zeharkatuko du txapelketak.



Goierriko 4 epaile

Bertsolarien jarduna neurtzeko 4 goierritar izango dira epaimahaian: Jon Agirre, lazkaotarra; Martin Aramendi, ataundarra; eta Migel Mari Imaz eta Asier Oiarbide idiazabalarrak.

Goierri hiru saio izango dira. Finala Irunen jokatu da. Euskal Herriko txapelketan egin zen bezala, bi onenen arteko buruz burukoa jokatu da.

Web orrialdea

Teknologia berriek ere garrantzia izango dute Gipuzkoako bertsolari txapelketa honetan. www.bertsozale.com orrialdean, agertuko da bertsolari, gai-jartzaile eta epailei buruzko informazio zehatza eta saio bakoitzeko puntuaketa eta kronikak ere izango dute tarte. Gainera, eta berrikuntza modura, foro bat jarriko da martxan, txapelketari buruzko iritziak jasotze aldera.

Urriak 3, 22:00etan, Zaldibiako Antzokian


Joxe Munduate
Alfontso Jimenez
Alaitz Sarasola
Iban Urdangarin
Bixente Gorostidi
Iker Zubeldia

Urriak 10, 22:00etan, Legorretako Herri Zinemari

Iñaki Apalategi
Uxue Fernandez
Gorka Azkarate
Amaia Agirre
Antton Fernandez
Ekaitz Goikoetxea

Urriak 26, 17:00etan, Ordiziako Herri Antzokian

Finalaurdeneko saioa



Goierriko 2 gaijartzaile

Bertsolariei gaia jartzen ariko diren, beste bi goierritar gazte arituko dira: Irati Goikoetxea beasaindarra eta Saroi Jauregi zaldibiarra.

7 bertsolari

Goierritik 7 bertsolari arituko dira lehian Gipuzkoako txapelketa honetan. Batzuk lehenengo aldia izango dute, beste batzuk, berriz, beteranoen taldean sartzen dira. Jarraian dituzue zazpi bertsolarien argazki eta datuak. Aitor Sarriegi, final laurdenetarako sailkatua dago dagoeneko; besteek, hasieratik jardun beharko dute, Zaldibiako eta Legorretako saioetan.



Iñaki Apalategi

Beasaindarra, 1982ko irailaren 26an jaioa. Batxilergoa burutua du eta ikasten jarraitzen du. Plazatik Gaztetxera saria irabazitakoa da eta baita 2003ko Osinalde Saria ere.



Ekaitz Goikoetxea

1980ko abuztuaren 28an jaio zen Beasainen. Euskal Filologian lizentziatua, euskara irakasle eta itzultzaile lanetan ari da. Hainbat bertso paper sariketa irabazi ditu eta Euskal Herriko Eskolarteko bi txapel ere baditu.



Joxe Munduate

Ataundarra, 1972ko abenduaren 18an jaioa. CAFeko langilea da. Eskolarteko txapelketa, Osinalde eta Lizardi sariak irabazi ditu, besteak beste.



Alaitz Sarasola

1979ko maiatzaren 1ean Ordizian jaioetakoa, mekanika eta kazetaritza ikasketak burutu ditu eta muntatzaile lanetan dihardu. Lazkao Txiki bertso paper lehiaketa eta Orixe saria irabazi ditu.



Aitor Sarriegi

Beasaindarra, 1976ko abenduaren 26an jaioa. Ingeniari informatikoa da izatez eta irakasle lanetan dihardu. Hainbat sari irabaziak ditu, bai bat-batekoan eta baita idatzizko bertsoetan ere.



Iban Urdangarin

Ataundarra, Gipuzkoako Eskolarteko txapelduna izana da.



Iker Zubeldia

1981eko maiatzaren 16an jaioetako zegamarra. Kalderero moduan ari da lanean. 2001eko Osinalde saria irabazi zuen.

SOLOZABAL
AUTO-ESKOLA

Promozioa: auto ordua 12 euro

Aita Urdaneta ORDIZIA
☎ 943 88 72 76



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
☎ 943 88 87 02
BEASAIN

Aratz Mendizabal zaldibiarra Asegarceko pilotaria: "Nik uste baino askoz ere hobeto ari naiz profesional mailan"


Bi hilabeta daramatza profesional mailan jokatzeko Aratz Mendizabalek. Hasieratik partida garrantzitsuak jarri dizkio enpresak, estelar batzuk tarteko.

- Uztailaren 19an debutatu zenuen profesionalean, zer moduzko esperientzia izan da orain artekoa?

- Esperientzi ona izan da. Bigarren partidua estelarra jarri zidaten eta horrek ilusio handia egin zidan entrenatzeko eta aurrera jarraitzeko. Hasiera batean aurkari guztiak berriak dira eta ez dakizu zein mailatan zauden, eta nik uste baino askoz ere hobeto ari naiz.

- Hasieratik estelarretan sartzea ez al du exijentzia gehiago, presio gehiago ekartzen?

- Niri jendearen presioak ez dit asko axola. Nik neure buruari jartzen diot presioa. Kon-



Aratz Mendizabal Laguardia

Zaldibiarra, 20 urte bete berriak, 1,87 m-ko altuera, 88 kilo. Asegarceko aurrelaria, uztailaren 19an debutatu zuen Zarauzko Aritzatalde pilotalekuan.

redoreak daude telebistak partidu gehiago ematen ditu, noski presio gehiago dagoela. Afizionatuetan zenbait partidu jokatzeko jokatzeko nire baina orain partidu guztiek dute bere tentsioa.

- Jokoa ezberdintasunik aurkitu al duzu? Eta materialean?

- Bai nabari da, partiduak askoz ere gozgarriak dira, lu-

zeagoak, pilota azkarrago ibiltzen da. Eskutarako materiala hobe dela iruditzen zait, enpresak jartzen du eta beti material berdinarekin ari gara jokatzeko. Afizionatuetan toki bakoitzean pilota mota batekin jokatzeko genuen.

- Entrenatzeko era aldatu al da?

- Enpresak Gasteiza astean 3 aldiz joanarazten digu entre-

natzera eta herrian ere aritzen naiz beste egunetan.

- Herriko jendeak orain telebistaren bidez gehiago jarraitzen al zaite?

- Nik zortea izan dut eta herrikoek jarraitzen naute pilotalekuetara. Baina telebistan dezente partidu eman dituzte eta ondoren beti komentatzen dizu jendeak, onerako edo txarrerako.

- Profesionaltara igotzearekin helburu bat bete al duzu? Aurrera begirako zein amets duzu?

- Helburu handiena horixe da, profesional izatea eta behin lortuta gustura nago. Txirrindulari baten ametsa tourra irabaztea den bezala pilotariarena buruz buruko txapela da. Baina, orainoz ez dut horretan pentsatu ere egiten. Egunez egun ikasten joan nahi dut.

- Txapelketaren batean parte hartuko al duzu?

- Urriaren bukaeran hasiko da

AUZOKI
Komunitateen administrazioa
Kol. Zenb. 599
Urdaneta 52-behea. Ordizia.
Tel.: 943 087 486
635 703 671 / 635 702 570

- Jabekideen komunitatea osatzea
- Komunitateen kontabilitatea
- Akten idazketa
- Aurrekontuen eskaera
- Aholkularitza legala
- 24 orduko asistentzia
- e.a.



Mendi-Ondo etxea
☎ 943 88 40 57
ZALDIBIA

● Iturgintza
● Berogintza

Esteban Lasa, 7
☎ 943 88 80 29
BEASAIN

2. mailako lau t'erdiko txapelketa eta uste dut sartuko naizela. Pixka bat gogorrigo entrenatu beharko du eta ea zer egiten dugun.

- Nolako pilotaria da Aratz Mendizabal?

- Bi eskuak nahiko onak ditut: Defentsa ona dudala esaten didate. Gehiena landu beharrekoa golpea dut, erasoko jokia.

- Zein modalitate duzu gustukoa?

- Denetan aritzen naiz gustura baina batez ere lau t'erdiko neurria oso gogokoa dut. Elgetan kadete mailakoa irabazi nuen 1999an Gurrutxagaren aurka eta iaz afizionatu mailakoan finala galdu nuen Sorraainen aurka.

- Eskuetatik zer moduz ibiltzen zara?

- Orain arte ondo ibili naiz baina orain ari naiz nabaritzen. Udan beroarekin ez dut arazo handirik izaten. Negan okerrago ibiltzen naiz, zirkulazio nahiko txarra baitut.

- Gazteak gogor ari zarete pilotan.

- Azken aldian gutxi egin dute debuta profesionalean. Baina, debutatu dutenak oso indartsu ari dira. Azkenaldian igo garenen artean hortxe dago Martinez de Irujoren adibidea, pilotari handia izan daitekeela erakutsi du. Dena dela, enpresak plantilak murrizten ari dira eta oso aukera gutxi dago.

- Zaldibiako pilota eskolaren azken emaitza zarete zu eta Gurrutxaga. Nola ikusten duzu etorkizuna?

- Azken urteetan asko ari dira jaisten pilota eskolak, bai Zaldibian eta baita inguruetan ere, zaletasuna gutxitu dela dirudi. Gurrutxaga, berriz, afizionatuen mailan nahiko puntan dabil eta horrela lan egiten jarraitzen badu nik uste dut aukera asko dituela igotzeko.

- Zaldibiako jaietan parranda egiteko denborarik hartuko al duzu?

- Aurtengo udan besteetan baina parranda gutxiago egin dut, baina jaietan zerbait egin beharko dugu. Urriaren 4an, larunbatean, herrian jokatuko dut eta ondoren libre izango naiz.

- Aurrelari bat:

- Aimar Olaizola.

- Atzelari bat:

- Ruben Beloki.

- Pilotaleku bat:

- Zarauzko Aritzba-talde.

- Gorri ala urdin?

- Orain beti urdinez jokutzen dut, beraz, urdina.

- Egin duzun partidurik txarrena:

- Jubeniletan GRAVN txapelketan 22-1 galdu nuen Oinatz Bengoetxearen aurka.

- Egin duzun partidurik onena:

- Jokoz onena ez zen izan baina gogoan dudana debuteko partidua da. Irabazi egin nuen eta izugarritzko ilusioa egin zidan.

- Bertute bat:


- Defentsa.

- Akatsa:

- Golpe gutxi.

- Festetako plan bat:

- Etxean bazkaldu, siesta pixka bat egin, pilota partidua jokat, herriko tabernaren batean koadrilarekin afaldu eta parranda egitea.



LOINATZ

Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak

☎ 943 88 20 07

Nagusia, 27

BEASAIN



Autowag, s.a.



☎ 943 888 254 943 888 266

Faxa: 943 888 105

N-1 errepidea, 419 Km

BEASAIN



kutxa

gizarte ekintza

ZINEA

GOIENIZ:

Urriak 9: 'Balzac y la joven costurera china', 21:00etan, Beasaingo Usurbe Antzokian.

LEGORRETA:

Urriak 9: 'Al otro lado de la cama', 20:30ean, Herri zineman.

Urriak 16: 'La caja 507', 20:30ean, Herri zineman.

GOIENIZ

'Balzac y la joven costurera china'

Dai Sijie

(Frantzia-Txina. 2002)

'Balzac eta txinatar jostun gaztea 70eko hamarkadan Kultur Iraultza izenekoaren barnean kokatutako istorio gazi-gozoa dugu. Nekazarien artean bizitzera behartuta dauden bi ikasle dira protagonista eta berreziketaren prozesuan hauek izandako esperientzia nahiz atzerriko literatur maisulanen irakurketaren bidez herrixka horretako biztanleengan eragindako aldaketak kontatzen zaizkigu. Izenburuari begiratuta, film hau oso literarioa izan daitekeela badi-rudi ere, ez da inondik ere horrela, identitatearen bilakaera eta sentimendu sakonak ardatz hartuta, zine estilo garbi eta ederrean kontatuta baitago.

erakusketak

LAZKAO:

Urriaren 5era bitartean, 'Kilometroak 2003 arte erakusketa', udaletxeko erakusketa aretoan.

Urriaren 3ra bitartean, 'Euskal liburu zaharren erakusketa', Beneditarren etxeko erakusketa aretoan. Ordutegia: astelehenetik ostiralera, arratsaldeko 5etatik 7etara. Bisita gidatuentzako, goizeko 10etatik 12,30etara.

ORDIZIA:

Urriaren 3tik 24ra, Okupgraf topaketen barruan, 'Euskaldunen Herrian Barrena. Humboldt' serigrafia karpetaren erakusketa eta 'Jack London'en inguruan Edu Lopez lan grafikoaren erakusketa, Barrenan.

hitzaldiak

IDIAZABAL:

Urriak 7, 'Gipuzkoako leinua: jatorrizko oinetxearen eta familiaren artean' hitzaldia, Jubilatuen elkartean, 19:30ean.

ZEGAMA:

Urriak 16, 'Menpekotasuna duen pertsona nola zaindu' hitzaldia, Kultur etxean, 19:00etan.

ikusentzunezkoak

LAZKAO:

Urriak 3, Ehunate taldearen instal akzioa ikuskizuna, 22:00etan, Kultur etxeko erakusketa aretoan.

Urriak 5, Ehunate taldearen instal akzioa ikuskizuna, 15:30ean, Maizpide euskaltegian.

antzerkia

ZALDIBIA:

Urriak 7, 'Kutsidazu bidea' Ixabel, antzerkia, 22:30ean.

musika

ZALDIBIA:

Urriak 3, Joselu Anaiak, 23:00etan.

Urriak 4, Laiotz taldea, 23:30ean.

Urriak 5, Akelarre, 20:00etan eta 23:30ean.

Urriak 6, Tapia eta Leturia, 22:30ean.

Urriak 11, Izotz, 23:00etan.

bertsoak

LEGORRETA:

Urriak 10, Gipuzkoako bertso txapelketa, 22:00etan, Herri Zineman. Iñaki Apalategi, Uxue Fernandez, Gorka Azkarate, Amaia Agirre, Antton Gernandez eta Ekaitz Goikoetxea.

ZALDIBIA:

Urriak 3, Gipuzkoako bertso txapelketa, 22:00etan, antzokian. Joxe Munduate, Alfonso Jimenez, Alaitz Sarasola, Iban Urdangarin, Iker Zubeldia eta Bixente Gorostidi.

mendi irteerak

ORDIZIA:

Urriak 5, Ordizia-Lazkao. Kilometroak.

solasaldia

ORDIZIA:

Urriak 10, Artisaualdiaren barruan, 'Artisau esperientziak' solasaldia, Hernaniko-Asun Esnal bitxigilearekin.

GOARDIAKO FARMAZIAK

Astegunetan: Jauregi

(Santa Maria, 2 - Ordizia). 943 160949.

Urriak 4-5: Azpilikueta

(Kale Nagusia, 8 - Beasain). 943 880152.

Urriak 11-12: Jauregi

(Santa Maria, 2 - Ordizia). 943 160949.



Sustraiez Blai jaialdia prest

Urriaren 10etik 18ra, munduko kultura desberdinak Goierrin

Aurreko alean aurreratu genuen bezala, Sustraiez Blai jaialdiaren 3. ekitaldia berrikuntzaz beterik zetoirela. Dagoeneko egitaraua prest daukate antolatzaileek eta mundu osoko kulturaren egoitza bihurtuko da Goierri, urriaren 10etik 18ra.

Itsasondon izango dira bi ekitaldirik garrantzitsuenak, urriaren 17an eta 18an. Okasiorako karpa bat jarriko dute Itsasondon bertan. Hala ere, aurretik beste hainbat eta hainbat kultur saio izango da, Ordizian eta Beasainen. Dena den, talde eta musikari bakoi-tzari buruzko xehetasunak erdiko orrialdeetako eranskinean dituzue.

Urriak 10, ostirala:

Iker Goenaga (Triki-pop). Ordiziako zinema aretoan, 22:15ean. Sarrera: 6 euro.



Beste ekintza batzuk

Asteburua iritsi aurretik, beste hainbat ekintza ere izango da, Ordizian eta Beasainen.

Urriaren 10etik 18ra:

Saharar herriari buruzko erakusketa, Ordiziako Barrena Kultur etxean.

Urriak 16, osteguna:

Film-emanaldia, Beasaingo Usurbe antzokian, 21:00etan: Compay Segundoren omenez, 'Buena vista social club' (Win Wenders). Sarrera: 3 euro.

Urriak 18, larunbata:

Hastapen ikastaroa: txalaparta ikastaroa Kolpez Kolpe taldearen eskutik, 11:00etatik 14:00etara, Ordiziako Barrena Kultur etxean.



Urriak 15, asteazkena:

- Gailu (rock elektronikoa eta proiektzioak). Beasaingo Usurbe antzokian, 21:00etan. Sarrera: 6 euro.

Urriak 17, ostirala:

Eskutank (esku soinua eta klakea), Wafir (afro musika), Txatunga Bembe (sanba-batukada), Zaragoza Accion Sonora eta Goierriko gonbidatuak. Itsasondoko karpan. 23:00etan. Sarrera: 13 euro. Asteburuko bonoa: 25 euro.

Urriak 18, larunbata:

Möondo (Asian musika), Bidente (afro musika), Ojos de brujo (flamenco-fusioa) eta DJ. Lord Sassafras (word musika). Itsasondoko karpan, 23:00etan. Sarrera: 15 euro.

VI. ARTISAUALDIA

GIPUZKOAKO ARTISAUEN VI. AZOKA ORDIZIA

URRIAK 11-12

MAJORI Kiroldedia

Ordutegia:
10:30etik 14:00etara
17:00etatik 20:30era

www.artisaualdia.com

Antolatzaileak: Babeslea: Laguntzailea:

Ordiziako Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia, CAJA LABORAL EUSKADIKO KUTXA

ZUHAIZKI S. A. L.

ZURGINDEGIA

X LEIHOAK, ATEAK eta abar

X ESKAILERAK NEURRIRA

Cuatrovientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa
20491 LEABURU
Tfnua.: 943 67 36 11
Faxa: 943 67 36 55

Etxebizitzak

erosi

➔ Zaldibian etxebizitza erosiko nuke. 605743796. 18:00etatik aurrera deitu.

salgai

➔ Beasaingo erdigu-nean pisu polita eta egokitua salgai. 90 m². 3 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela eta trastalekua. Garajearekin edo gabe. Bista zoragarriak. 619022340.

➔ Etxebizitza salgai Ordizian, garajearekin. Guztiz berritua eta altzari batzuekin. 626292276.

➔ Zegamako erdigu-nean 80 m²ko pisua salgai. Oso eguzkitsua. 699846417.

➔ Zegaman 130 m²ko pisua salgai. 943422897.

errentan eman

➔ Urbasako mendi leerroan etxea alokatzen da, asteburu, zubi eta oporretarako. 948533981.

➔ Pisu berria alokatzen da Ordizian. 653011954.

elkarbanatu

➔ Beasain eta inguruko herrietan pisu bat elkarbanatuko nuke gus-tura. Iker. 680621163.

Garajeak lokalak

errentan eman

➔ 100 m²-ko etxabea alokatzen da Olaberrian. N-I errepidearen ondoan. Biltegiarako oso egokia. 943160927.

Bestelakoak

salgai

➔ Euskaltel-euskadi karreterako bizikleta salgai, 56 neurrikoa. Egoera onean. 609966474

➔ Bi akumuladore salgai. Egoera onean. 606419407.

➔ Ford Fiesta XR2 autoaren piezak salgai. 943886506. Gauzez deitu.

➔ Su egurra salgai. Beheko surako edo ekonomikorako. 659071686.

➔ Intxaur egurrezko egongelako armarioa salgai. 300.000 pezeta. Prezio negoziagarria. Erosten duenarentzat, 3 plazako sofa bat, plaza bateko bi butaka, egongelako mahai txikia eta kristalezko 3 lanpara opari. 943084157. 22:30etik aurrera deitu.

➔ Sutarako egurra salgai. 2 metrora moztua. Olaberrian. 677413353.

➔ Peugeot 306 autoaren 4 llanta originalak salgai, kubiarta berriak eta 4 llanta ronald separadoreekin. Prezioa adosteko. 649150243.

➔ Mercedes Vito baten atzeko 3 eserlekuak saltzen ditut. Erabili ga-beak. Prezio interesgarria. 16:00etatik aurrera deitu. 609030621.

➔ Mitsubishi Montero modelo berriaren 3.2 DID defentsa orijinala eta homologatua salgai. Berria eta estreinatu ga-bea. 943880675.

➔ Premier markako bateria salgai. 943180183.

➔ Umeentzako egurrezko sehaska salgai. 5 urtera arte balio du. Oso egoera onean. 670422051.

erosi

➔ Bigarren eskuko trikitixa erosiko nuke. 943187541.



Zubi termiko hausturak leihoak
Bulego eta bainuetako manparak
Ateak, erakusleihoak eta balkoiak

GEURIA
ALUMINIO AROZTEGIA

943 880 162
Iñauti Ind. 14
OLABERRIA

Pisuraren kontrolean
ZEURE OSASUNA
da garrantzitsuena

Ana Telleria Dra.
DIETETIKA
eta
NUTRIZIOA

www.auladesalud.com
943 08 55 60
Kontsultorio medikua Nafarroa etorb. 25 BEASAIN



izal
IMAZ eta CONTRERAS

PINTURA eta PAPERGINTZA

943 187 049 - 943 187 045
Ondramuño baserria IDIAZABAL




Lues rothers
BEASAIN



Abokatuak
Enpresen asesoria eta gestioa

AHOLKULARITZA

Tel/Faxa: 943 162 393 e.posta: zuzenki@euskalnet.net Elosegi, 16 LAZKAO



txekin
www.txekin.net

Etxebizitzen salmenta: Legorreta Beasain Orendain

Animaliak

salgai

➔ Basurdetarako txakurkumea salgai. Sa-bueso eta Grigai kru-zea. Guraso ehiztariak. 943682052. Gauetan deitu.

➔ Setter ingeles arraza-ko 4 txakurkume eme salgai. Pedegree oso onarekin. 660696808 (Igor).

➔ Bi behor salgai, ze-labere gisa erabiltzeko. Zaldi arabiar batekin gurutzatuak. Bat hau-rrantzako ezin hobe. 629528736.

➔ Euskal pottokak salgai. 943161828.

➔ Spaniel arrazako txakurkumeak salgai. 943160919 - 659843036.

➔ Setter arrazako bi txakur salgai. Bat 5 ur-tekoa eta bestea 6koa. 943160015.

opari

➔ Txakur gazte 1 opa-ritzen da chip eta guzti. 696645880.

Ibilgailuak

salgai

➔ Opel Kadet, 1.8i salgai. SS-AJ. 1990. ur-tekoa. Beti garajejan egonda. 943889999.

➔ Opel Astra autoa salgai. SS-AP. Egoera oso onean. 605766110.

➔ Peugeot 405 autoa salgai. SS-AG. 943887041 - 943160926.

➔ Vespa motorra salgai. Oso egoera onean. 1.000 euro. 656723688.

Lana

eskaerak

➔ Zerbitzaria behar da sagardotegi baterako. 615700406.

➔ Beasainen, ume bat zaintzeko eta etxeko la-nak egiteko, pertsona gazte edo heldu bat be-harko genuke. 943028855.

➔ Neska edo emaku-me euskalduna behar da Beasainen, 4 urteko haur bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. 943085602 - 656777471.

➔ Taberna batean lan egiteko zerbitzaria be-har da. 943889848.

➔ Pertsona bat behar da ileapaindegi batean lan egiteko. 639962850.

➔ Pertsona bat behar da 6 urteko haurra zain-du eta etxeko lanak egi-teko. 615701292 - 943027632.

➔ Neska bat behar da tabernan lan egiteko. Astebukaeretan edo as-tean zehar. 605772623.

eskaintzak

➔ Neska euskalduna eskaintzen da etxeko la-nak egin eta haurrak zaintzeko. 679973209 - 943884626.

➔ Neska euskalduna eskaintzen da Beasai-nen, haurrak zaintzeko. 943886981 - 669875234.

➔ Neska gazte bat es-kaintzen da haurrak zaintzeko edota dendari bezala lan egiteko. Es-perientziaduna eta ardu-ratsua. 625703527.

➔ Neska euskalduna eskaintzen da etxeko la-nak egiteko. 670517864.

IKASTEK AKADEMIA 2003-2004 IKASTURTEA

Goierriko akademia integral bakarra. Hezkuntzako profesionalek zuzendua.

ESKOLA LAGUNTZA

- * Gai eta maila guztiak
- * Lehen hezkuntza, DBH
- * Batxilergoa
- * Moduluak, Zikloak
- * Unibertsitate-maila

IKASKETA ARAZOAK

- * Errendimendua
- * Atentzioa
- * Ohiturak
- * Metodoak
- * Emozioen kontrola

GOIERRIKO UNIBERTSITATEA

- * Marrazketa teknika
- * Fisika
- * Matematika
- * Teknologia

Joan Iturralde, 5 BEASAIN ☎ 943 160 120

www.ikastek.net



Nafarroa
Etorbidea, 9

☎ 943 88 94 82
BEASAIN

GERTU aholkularitza



txekin

ENPRESA BERRIAK SORTZEKO
DOHAINEKO AHOLOKULARITZA
ETA SUBENTZIOAK

BEASAIN
gertu.asesoria@terra.es
www.gertuasesores.com

Kale Nagusia, 2
Telf: 943 16 21 92
Faxa: 943 88 36 33



Zure ahotsa lakarra bada, hitz egiterakoan eztarria erresumintzen bazaizu, min hartzen baduzu edo oinuren bat ahokatzeko arazoak badituzu...

Mintzaera, berba eta ahotsaren gorabeheren tratamendua, diagnostikoa eta prebentzioa

ahots Logopedia

Nagusia 2 1ºEsk. 20200 Beasain Tfnoa 605 71 69 15 - 655 73 67 35



Zaldibiarak 1933 inguruan

Gaur egun Bilore lantegia dagoen lurretan ateratako argazkian parrandan zebilen Zaldibiako koadrila bat ageri da argazkia. Presentacion Mendizabalek utzitako argazkia da.

Atal honetan argitaratzeko argazki zaharrak behar ditugu. Deitu 943-889612 telefono zenbakira. Behin erabilitakoan, argazkiak itzuli egiten dira.

ESTANKO
taberna
Pintxo bereziak
Festak ondo pasa
© 943 88 28 65
Sta. Fe, 15 ZALDIBIA

 **Mendizabal, C.B.**
ITURGINTZA - BEROGINTZA
Tel.: 609 614 552 (Iñaki) - 659 644 221 (Xabi)
Txindoki, 23 - 4. ezk. ZALDIBIA

 **LAZKAO-ETXE**
● JATETXEA ASTEBURUETAN ZABALIK
● NEKAZALTURISMOA
→ 4 logela, beren bainugelekin
→ Gosari, bazkari eta afariak
☎ 943 88 00 44 Aiestaran erreka ZALDIBIA

MILA ARRAÑDEGIA

Sta. Fe jai zoriontsuak!
☎ 943 88 90 84
Sta. Fe Kalea ZALDIBIA

MARIBI
ileapaindegia
Jai zoriontsuak denoi!
Bide-Arte, 48
☎ 943 88 57 49
ZALDIBIA

PIIL Harategia
Mondejuetan berezitasuna
Santa Fe Kalea ZALDIBIA Tfnoa.: 943 88 28 68



Jose Agustin Jauregi

Tel. eta Faxe: 943 886 558
Poltsikoko telefonoa: 616 698 288



- Pankartentzat errotulazio bereziak
- Fatxadako toldoak
- Motorizatuak eta automatikoak
- Estaldurak eta itxidurak
- Toldoak alokairuan
- Kamioientzako toldoak: Tir toldoak
- Toldo korrederoen prestaketa
- Errotulazio eta inpresioa lonetan eta zurrunetan

ERAKUSKETA:

Lorategiko eta terrazako altzariak, kolore ezberdinetako aluminio lakatuan

Zubi-Erreka Industrialdea, 42

LAZKAO

toldosagustin.com

e-posta: auxkin@toldosagustin.euskalnet.net



GARMENDIA

Teilatuak



Mallutz industrialdea, 25-26 ORDIZIA Tel. : 943 161 032 / Faxe: 943 160 842

E-mail: garmendia@garmendiatejas.com • www.garmendiatejas.com

Teilatuak

Aukera ugari, TBF eta G.F. bermearekin kalitatez eta egoki bukatutako teilatuak.




Zurezko egiturak

Immersio eta hustueraz landutako zurezko egiturak, (VAC-VAC) sistemaz eta VACSOL bidez babestuenak.



Hodiak

Tokian tokiko hodian instalazioak, nola aluminiozko ala kobrezko 25m. bitarteko soldadurarik gabeko luzera linealetan.



oskarbi

oinetakoak

udazkena 03

Secundino Esnaola 8, ZUMARRAGA
Kale Nagusia 34, BEASAIN
Kale Nagusia 25, ORDIZIA

